



# ttipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus



Euskal Herriko hirugarren mailako txapeldun → 49

2016ko urriaren 13a | XXXVI. urtea | 672. zenbakia

## Gehigarri berezia

Santu Guztien Eguna → 42

## ETXALAR → 21

Usategietako besta urriaren 16an

## DONEZTEBE → 26

Udazken literarioak zikloa urriaren 21ean hasita

## SARA → 43

Usoaren Astea urriaren 23tik 30era

## KIROLAK → 49

Txapela eta marka Onsalo eta Astiasarantzat

## Elizondoko feriak urriaren 28an eta 29an

Udazkenarekin batera ailegatu da ferien tenorea eta Elizondokoak izanen dira lehendabizikoak. Ortziralean, 10:00etatik eguerdira arte Merkatu Plazan Baztango aziendarik ederrenak ikusgai izanen dira eta Laxoa Plazan, berriz, makineria erakusketa. Egun osoan, nekazaritzako lehengaiak, tresnak, jakiak, arropak... ikusgai eta salgai paratuko dituzte. Saharaztanek, berriz, tonbola paratuko du. → 10



## Gutik Zura

ERREPORTAJEA → 3-5

Egurraren lehena, oraina eta etorkizuna landu dute *Gutik Zura* dokumentalean eta bide batez, egurrak Euskal Herriko gizartearekin izan duen harremana gizarteratu nahi izan dute. Lesakan bizi den **Mari Jose Barriola Baraibar leitzarrek** sortu, sustatu eta zuzendu du proiektua eta aurtengo Donostiako Zinemaldian aurkeztu dute. Kritika onak jaso ditu, gainera. Egurrarekin lotura duten eskualdeko hainbat protagonisten lekukotasunak bildu dituzte dokumentalean: **leitzarrek** dira asko, baina horiez gain, **Arantza, Ezkurra** eta **Zubietako jendea** ere ageri da. Euskal Herrian ez ezik, atzerrian ere ibili dira grabaketak egiten, Frantziako Alpeetan eta Suitzan, esaterako.



## 30. Lurraren Eguna urriaren 23an

Eskulangileen eta elikadura azoka, barazki erakusketa, Txiki Txef sukaldari besta, Olakoren erakusketa, gasna eta sagardo lehiaketak, musikariak, herri-kirolak, dantzaldia... Egun osoko besta antolatu dute aurten ere Beran, urriko laugarren igandean egiten den hitzordu handia dela eta. Gainera, aldaketekin dator aurten 30 urte beteko dituen Lurraren Eguna. Bezperan ekitaldi gehiago izanen dira. → 18

ZOKKETAK → 55



Txartela egiteko deitu 948 63 54 58ra edo idatzi [info@ttipi.eusera](mailto:info@ttipi.eusera).

2016 · EKAINA



ttipi-ttapa

## Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan

**CIEsek Nafarroa Garaiko mendialdean**
**hartu duen 111 udalerrien eremuan ere**


## Ttipi-Ttapa 28.000 irakurle

DIARIO DE NAVARRA	14.000 irakurle
DIARIO DE NOTICIAS	12.000 irakurle
GARA	3.000 irakurle
EL PAÍS	3.000 irakurle
MARCA	2.000 irakurle
EL MUNDO	2.000 irakurle
BERRIA	1.000 irakurle
BESTE BATZUK	8.000 irakurle

**Ttipi-Ttapa**rekin  
zure iragarkiak eragin  
haundiagoa du



### SEXUAREN ARABERA

GIZONAK	%55,00
EMAKUMEAK	%45,00

### ADINAREN ARABERA

14-24 URTE	%13,40
25-34 URTE	%10,40
35-44 URTE	%27,60
45-54 URTE	%12,70
55-64 URTE	%17,80
+64 URTE	%18,20

### IKASKETA MAILAREN ARABERA

IKASKETARIK GABE	%27,60
OINARRIZKO BATXILERGOA	%17,80
GOI MAILAKO BATXILERGOA	%26,40
UNIBERTSITATEA	%28,30

Datu iturria: CIES, 2016ko lehenengo neurketa



GIZARTEA → GUTIK ZURA PROIEKTUA

# Egurraren lehena, oraina eta etorkizuna dokumentalean bildua

‘Gutik Zura’ izena du proiektuak eta Mari Jose Barriola leitzarrak sortu, sustatu eta zuzendu du

Egurak euskal gizartearekin izan duen harremana gizarteratu nahi izan dute *Gutik Zura* dokumentalean, eta bide

batez, egurraren aldeko apustua egin dute. Egurrekin lotura duten eskualdeko hainbat protagonisten lekukota-

sunak bildu dituzte Donostiako Zinemaldian estreinatu eta kritika onak jaso dituen ikusentzunezkoan.



HASIERA

«Proiektu honekin belaunaldiz-belaunaldi pasatu den jakinduria gizarterari erakutsi nahi diogu»

Mari Jose BARRIOLA  
Proiektuaren zuzendaria

*Gutik Zura* dokumentaleko irudi bat.

## G. PIKABEA

«Egurraren inguruan bere bizitza eman dutenei eskainitako omenaldi xumea da dokumentala». Kontent eta hunkituta, halaxe aurkeztu digu Mari Jose Barriola Baraibar Lesakan bizidun leitzarrak *Gutik Zura* dokumentala. Ikasketaz nekazaritzako ingeniaria da, lanbidez Bidasoa Lanbide Heziketa institutuko irakaslea eta Tknika Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza Aplikaturako zentruaren egurraren inguruko proiektu batean lanean ari dena. Eta bi-

hotzez ere egurrekin harreman berezia duena da Barriola. Berak sortu, sustatu eta zuzendu du *Gutik Zura* proiektua. Urruti ailegatu da bere hastapeneko asmoa, «hasieran DVD bat egin nahi nuen», eta hara non, dokumentala egin eta berriki Donostiako Zinemaldian ere estreinatu dute. Gainera, kritika onak jaso ditu, eta Mari Jose, nola ez, pozik eta emozioz beterik mintzatu zaigu estreinaldiaren ondok: «oso, oso gustura nago. Hitzekin ezin dut azaldu sentitzen dudana».

## ABIAPUNTUA

Hutsune bat estaltzeko gogoz hasi zen guztia. «Lanbide Heziketako euskarazko zikloak ezarri zirenean, egokitutako material didaktikoa falta zela ikusi genuen. Batez ere egurraren arloan dagoen materiala oso tekniko da eta unitibertsitaterako egokituia. Gure mailan, hemen sortutako plataforma digital bat behar genuela pentsatu genuen, irudi eta bideoekin egina». Horrez gain, «Euskal Herriko egur espezieak ezaugarritzeko prozesu bat abiatu genuen, egu-

rra kode teknikora egokitu eta eraikuntzako egituretan erabili ahal izateko». Horretan zerbait gehiago egiteko ideia: «egur espezieak ezaugarritzeko prozesuan, lanak mendian hasten genituen. Egurra bota, gero zerratik pasatu, laborategira eraman... Attak, orduan, 'Kontuz, egur horiek noiz botatzen dituzuen, ez da berdina ilbeheran edo ilberrin bota' esaten zidan. Basomutil ibilitakoa da eta bazekien zertaz ari zen», adierazi digu Mari Josek.

Herri jakinduria hori biltzea pentsatu zuen orduan, eta hala hasi zen bere gisara elkarrizketa batzuk egiten, «lehenbizi nik jakiteko, eta gero, nire ikasleei ahalik eta modu egokienean azaltzeko». Hortik sortu zen «proiektu honen beharra, belaunaldiz-belaunaldi pasatu den jakinduria hori gizarterari erakusteko».

## HELBURUAK

Dokumentala bi helbururekin egin dute: «alde batetik, egurraren lehena, oraina eta etorkizuna landu nahi izan

dugu eta beste aldetik, egurrak euskal gizartearekin izan duen harremana gizarteratu nahi izan dugu», dio Barriolak. Berak argi baitu: «egurra baliabide naturala da, eta birziklagarria eta berrerabilgarria izateaz gain, beste materialek ez dituzten dohain eta gaitasun asko ditu. Gizarteak hori ez du barneratua». Are gehiago, bere irudiko, «basoaren inguruko konnotazio txarrak barneratuaak ditugu, egurra moztea pekatua da jendearentzako, baina ez da hala berriz landatzen bada. Eta deforestazioa ere hor dago. Gauza batzuk gaizki egin dira». Hortaz, proiektu honekin «egurraren aldeko apustua» egiten ari direla gaineratu du.

#### EGURRAREN LEHENA, ORAINA ETA ETORKIZUNA

Egurraren iraganak dokumentalean «garrantzi handia» hartu duela azaldu digu leitzarrak: «horrela izatea beharrezkoa iruditzen zitzaigulako. Egurrak asko eman baitu». Eta urteekin desagertu diren hainbat lanbide profesional aipatu dizkigu: Irati eta Sakanako haritzekin egiten ziren baleontziak, almadiak, ikazkinak, burdinolak, herri-kirolak, saskigileak, egurrarekin musika-tresnak egiten zituztenak, baserriko lanetan erabiltzen zituzten tresnak... Naturak ematen zien materiala bertan zuten eta hori erabiltzen zuten».

Gaur egun egurra non dagoen ere azaldu



Dokumentaleko irudiak: goian, Miel Mindegia eta Patxi Astibia, eta behean, Miguel Barriola eta Felipa eta Anita Aierdi ahizpak.

nahi izan dute *Gutik Zurrari*: «egurraren orainean baso kudeaketa desberdinak landu ditugu, zergatik baztertu den egurraren erabilera...». Eta etorkizunari begira ere jarri dira: «egurrak dituen propietateak birbaloratze».

#### HERRIZ-HERRI

Joan den urteko azaro-abenduan hasi ziren grabaketekin, baina ordurako lan asko zegoen egina: «testigantzak lehenagotik hartuak zeuden, baina peliku-


la egiteko ekoiztetxe batekin lanean hasi ginez, berriz ere grabaketak egin genituen. Ez da berriberririk hastea bezala izan, aurretik bage-nekielako zein elkarrizketatu, zein paraje grabatu, zein enpresa bisitatu...». Eguraldiak lagundu dietenetan, dro-narekin ere grabaketak egin dituzte.

Ametsa egi bihurtu zaiola dio Mari Josek, «oso pribilegiatua» sentitzen dela: «alde batek, arlo profesionalean, egurraren inguruko iker-

kuntza eta berrikuntza asko gustatzen zaidalako, eta bestetik, alde pertsonalean, etxeko eta naturarekiko lotura hau barrenean daramadalako». Esker oneko hitzak ere izan ditu: «eskerrak denei, eta Lanbide Heziketako sailburuordetzari ere bai, amets hau aurrera eramateko aukera eman dadelako».

Donostiako Zinemaldian estreinatuta, orain, hiriz-hiri eta herriz-herriz zabaldu nahi dute dokumentala. «EITBk ere

lagundu digu eta telebistan ere botako dute», gaineratu du Barriolak. Gerora DVDa ere aterako dute saltzeko. Batean ez bada bestean, laster izanen dugu dokumentala ikusteko aukera. Bitartean zain egonen gara, egurraren lehena, oraina eta etorkizuna azaltzen duen dokumentalaren zain, ahaztu gabe egurrak zenbat eman dion gure herriari, Barriolak dioen bezala, «Euskal Herriak asko zor diolako egurrari».



Proiektuaren zuzendaria: Mari Jose Barriola Baraibar.

Filmaren zuzendaria: Jon Maia Soria.

Ekoiztetxea: Pxl Ecoizpenak. | Komunikazioa eta diseinu grafikoa: Oninart.

Babesleak: Eusko Jaurlaritzako Garapen eta Lehiakortasun Saila, Gipuzkoako Foru Aldundia, EITB, Bizkaiko Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua, Arabako Foru Aldundia, Euskadiko Basogintza Elkarteon Konfederakundea... Eta beste hainbeste enpresa, udal, elkarte... (Gehiago: [www.zura.eus](http://www.zura.eus) atarian).

Iraupena: Ordu bat eta 25 minutu.



LEKUKOTASUNAK

Eguraren inguruan beraien bizitza eman du-  
ten Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako ha-  
inbaten lekukotasunak bildu dituzte *Gutik Zura*  
dokumentalean, baita atzerriko adituenak ere:  
«Suitzara joan eta Biel unibertsitateko ikerlari  
batekin egon ginen, ilargiak zuhaitzetan eta lan-  
dareetan duen eragina aztertzen du. Uniber-  
sitate hori eraikuntza eta formakuntza aldetik  
asko garantzen duena da», dio Mari Jose Bar-  
riolak. Kolonbiar baten testigantza ere jaso du-  
te: «Nekazaritzako ingeniari bat da, proiektuan  
berek in kolaboratzen ari naiz, eta joan den ur-  
tean bere bisita izandu genuen». Frantziako Al-  
peetan ere ibili dira grabatzen, zehazki, Mari Jo-  
seren atxa, Juantxo, gaztea zela lanean aritu zen  
inguruan.

Eta eskualdeko jendeak ere jarri du bere alea.  
Leitzarrak dira asko: «**Juantxo Barriola** atxa eta  
**Miguel Barriola** baserritarra ageri dira, **Felipa**  
eta **Anita Aierdi** ahizpak ere bai, emakumearen  
papera eta garrantzia azpimarratuz. **Gabriel Sa-  
ralegiren** testigantzak ere bildu ditugu eta **Pa-  
txi Astibia** aizkolariarenak ere bai. **Pantaleon**  
**Errandonea** arantzarrarekin ere egondu gara,  
eta Arantzako **Kontxita** eta **Pili Altzurirekin** ere  
bai». Malerreka aldean ere ibili dira: «**Miel Min-  
degia** aizkolaria elkarrizketatu genuen eta Zu-  
bietako **Xanti Uhaldek** makilak eta kaikuak no-  
la egiten dituen erakutsi zigun».

Paraje ederretan ibili dira dokumentalerako  
irudiak hartzeko, eta tartean, **Bertziko Natur**  
**Parkean** edo **Donamariko Jauregia** dorretxe-  
an, azken hau egurrak eraikuntzan izan duen  
garrantziaren erakusle.



Eskualdeko protagonistak

Juantxo BARRIOLA | LEITZA

«Ez nuen pentsatuko  
nire kontuak adituta  
alaba hain urruti  
ailegatuko zenik»

«Familian  
ezbehar hura  
gertatu izan  
ez balitz,  
nik Frantzian  
segituko nuen  
lanean»

14 urte arte etxean aritu zen lanean Juantxo Barriola leitzarra, gurasoei laguntzen, «behi eta zerrietatik bizi ginen. 14 urterekin basoan hasi nintzen, eta soldaduska bitarte herriko mendietan ibili nintzen». Soldaduska egindakoan, ordea, Frantziako Alpeetara alde egin zuen, «12 urte pasatu nituen Frantzian». Lehenengo urteetan, Chamonix herrian aritu zen basoan lanean, eta gero Les Carroz herrira joan zen: «zerrategi batean lanean hasi nintzen eta lau urte eman nituen han». Lana «oso gustukoa» zuela aitortu digu, eta «han bizitzeko plana egina nuen». Baina bizitzak beste bide batetik eraman zuen. «Les Carrozen lanean ari nintzenean, jaiotetxera ezkondua zen anaia zaharrena hil egin zen. Bi urte neramatzan handik etorri gabe eta entierrorako etorri nintzen. Biharamunean itzuli nintzen Frantziara, baina etxeokoa gogoan, halako miseria ikusia nuen, azkenean etxekoei laguntzera etortzea erabaki nuen». Berak, ordea, garbi du: «ezbehar hori gertatu izan ez balitz, izan dudana osasunarekin, nik han segituko nuen».



UTZITAKO ARGAZKIA  
Mari Jose eta Juantxo Barriola atxa-alabak, Donostiako Zinemaldian dokumentala estreinatu zuten egunean.

Orduko oroitzenak beti barrenean eraman ditu Juantxok, eta Mari Jose alabak ere gogoan ditu atak kontaktzen zizkion hango kontuak: «ttikitik han bizitutako kontuak entzun izan ditugu etxean, eta azkenean, gelditu egin zaizkit». Ez da harritzekoa, natura eta basoarekiko lotura familiarengandik jasotzea.

Eta bere esanetatik abiatuta, alaba noraino ailegatu den ikusita, hunkituta sumatu dugu Juantxo: «oso gustura nago alabak egin duenarekin, ez nuen pentsatuko neska koxkorra zela isil-isilik aditzen zizkidan kontu haiekin hain urruti ailegatu zenik». Are gehiago, «zenbaitetan negarra sartzen» zaiola ere aitortu digu.

**Nire txanda**

Jon ABRIL

**Astizkentan esan**

**A**stizkentan, entrenamientuk; ortziltan, gaztik martxan; laruntin... Gero eta maizago ikusten dut gure artean modu horretan idatzitako kartel, jakinarazpen eta oharrik. Eta bitxia da, ekimen horien gibelean, salbuespenik gabe, euskaraz alfabetatutako jendea dago, D ereduan ikasi duena. Nonbait, euskara batua arrotza zaie, ez da eurena, eta *benetakoak* izateko forma kolokialak erabili nahi dituzte, euskalkiaren "mesedetan". Eta oker dabilta. Gure euskalkian ohikoak diren ortzeguna, ortziralea, ilbeltza edota bertze, erran... eta gisakoak euskara batua ere badirelako.

«Benetakoak izateko forma kolokialak erabili nahi dituzte»

Ezin dut ulertu nahita gaizki idazteko joera hori. Euskara batura ailegatzeko egin den ahalegina izugarria izan da, eta eredugarria, neurri handi batean. Baina, nonbait, belaunaldi berriak lotsatu egin dira, edo ofizialeki iruditu, edo auskalo zer. Hori bai, ahozko hizkeran, berdin-berdin darabilte *esan*, *beste* edota *hitz egin*. Horretarako ez dute arazorik. Ulertzea kostatzen zait.

**Ezpala**

Aitor AROTZENA

**Bareak eta bizkorrak**

**B**ertze ipuin edo fabula ugariren artean aditukatu dugu erbia eta dortokarena, ibilian-ibilian, ustez motelena denak irabazten duen lasterketarena. *Hori ipuinetan bakarrik gertatzen da*, erranen duzue. Baina udazkenean bertze adibide garbi bat ikusten dugu urtero-urtero: Ez al da ondo-biltzaile sutuena, arinena eta bizkorrena baino lehenago ailegatzan barerik motelena ondoetara?

**Nabarmentzekoak**ENDIKA Urrutia  
Nafarroako txapeldun

Ionekin bikote eginez, Nafarroako erremonete txapelketa irabazi du saldiastarrak. 35-25 irabazi zieten finalean Uterga eta Etxeberria III.ari eta Endika izan zen finaleko onena.

Itxaso ONSALO  
Euskal Herriko txapeldun

Leire Astiasaran zizurkil-darrarekin batera Euskal Herriko arpana txapelketa irabazi du arsoarrak. Gainera, Euskal Herriko errekor berria ere ezarri zuten irailaren 25ean Uharten.

Josean ETXEBERRIA  
Txapela eta igoerak

Euskal Herriko 3. mailako aizkora txapelketa irabazi zuen Igantzin eta biharamonean, txapeldun ordea izan zen Nafarroako 2. mailakoan. Bietan, mailaz igotzea lortu du Zigakoak.

Atzera begira  
→ 2001-X-4  
TTIPI-TTAPA 311 zk.

**Txapeldun handienaren agurra duela hamabortz urte**

«Pilota profesionala utzi du XX. mendeko txapeldunik handienak» izenburupean, Julian Retegi eratsundarraren erretiroaren berri eman zuen TTIPI-TTAPAK. Irailaren 20an jokatu zuen azken partida Retegi II.ak Adarragan eta Abel Barriola lagun zuela, 18-22 galdu zuen Aimar Olaizola eta Armendarizen kontra. Baina emaitza zen gutxienekoa, partida horrekin adio erran baizitzaion kirol honen eman duen izarrik diztiratsuenari. Profesionaletan egin zituen 27 urtetan 22 txapel ofizial jantzi zituen, horietatik erdiak lehen mailako buruz burukoak. «Mano-mano aritzeko pilotari konpletua izan da, onena» zioen Antton Maizek.

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi-ttapa

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Ebeñike, Koro Irtatzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Mattin Larrale, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

**2016ko harpidetza sariak**

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**



Bortzietako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua





## Irakurleak mintzo

### Musu handi bat Manolo Urbietari

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ  
(AURITZ)

Deus baino lehen, Manolo edo Imanol, jaso Euskal Herri osoko haurren musurik goxoenena. Iruñeko Larraona ikas-tetxean ezagutu zintudan zuzenean, oso aspaldian, UEU Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako ikastaro haietako batean. Zure ikasgelan parte hartu nuen oso gustura, haurheldua nintzela, eta gehien gogoratzen dudana da zure goxotasun eta xamurtasuna. Helduokin ere, lurlean esertzen zinen gitarra jo eta kantatzeko, naturaltasun osoarekin, zalapartarik gabe, handikeriarik gabe, eta, irakasten zenigun, zure uste -jakintsuaren- arabera, haur guztiak gai direla kantatzeko eta musikarekin gozatzeko.

Harrezkero, ez dut berriz ere zurekin topatzeko zorioneko aukerarik izan, baina beti jarraitu dut zure bidea hurbiletik, eta, zu ezagutu izanak arrasto handia utzi zuen niregan.

Halaber, zoritxarrez, ezin izan nuen parte hartu zure omenaldietan, asko sentituta. Eta gaur ere, ezinezkoa gertatuko zait zure azken agurrean egotea fisikoki, baina gogoarekin hantxe izanen nauzu.

Eta bukatzeko, Imanol edo Manolo, jakizu zure abestiren bat entzun edo kantatzen dugun guztietan, gogoratuko zaitugula malko batekin begi baten, joan zatzaizkigulako, eta eguzki batekin bestean, egin dizkiguzun abesti-opari guztienengatik.

Hartu, ba, zure miresle guztion muxurik goxoenak, eta mila esker zure bizitza alaiagatik!

### Jokaera bitxiak

Esteban IRUSTA MALLEA

Urte luze hauetan euskal gizartearen kontra idatzi dutenak asko izan dira. Une honetan, gutxiago dira. Halere, batzuk ezin dute ohiturari uko egin eta tarteka agertzen dira. Artikulu guztietan erabiltzen duten gai ia bakarra Euskal Herria eta euskal gizarteak dira. (...) Irakurri dudana azkenetako astakerien artean, Luis Haranburu Altunarena da. Bere ustez, Euskal Herrira demokrazia Patxi Lopez Lehendakari izendatu zutenean heldu zen, PP eta PSOEek ituna egin ondoren. Egia da ETAk une horretan hartu zuela borrokarri uko egiteko erabakia. Baina erabaki horrek ez zuen zerikusirik PP eta PSOEek egindako itunakin, horrela suertatu zelako baizik. ETA zegoelako demokraziarik ez zegoela pentsatzea ez da egokia. Horrela balitz demokraziarik ez legoke inon. Gaur egun eta, ia beti, Europan ere, gatazkak eta borrokek ez dira falta eta horregatik ezin dugu esan demokraziarik ez dagoenik. Eztabaida daiteke dauzkagun demokraziak benetakoak diren edo ez; adibidez Euskal Herrian. Baina ez euskaldunen eruz preseski; erabaki gehienak Madriletik datozkigulako eta euskaldunen eskuetan dauden erabakiak bigarren mailakoak direlako baizik, XIX. mendean Guda Karlistak galdu ondoren. Francoren 40 urteko diktadura ez dugu kontuan hartuko zeren diktadura eta demokrazia antagonikoak baitira. ETA hain justu Francoren diktaduraren kontra sortu zen. Egi hau ez da agertzen inon. Harrigarria, benetan. Alderantziz, hiltzea gustukoa omen zuten. Horregatik jartzen omen zuten arriskuan beraien bizitza. Beste aldetik, ezin dugu ahaztu ETA sortu zenetik lehe-



**Bota bertsoa**

Peio IRIARTE ETXEBERRIA (Irun) • Neurria: Hamarreko nagusia  
Baztan-Bidasoko Bertsopaper lehiaketan 2. saria (15-18 urte)

### Jaiotza-Heriotza

1. Gure amaren sabela dugu bizitza hontan terraza eta bertatik jauzi eginez hasi (egjiten da jolasa une hortatik jarraitu behar gure bizitzan konpasa denok dakigu gure bizitza ez da izango erraza negarrez hasten baitugu denek guren lehengo arnasa.
2. Alaitasuna une askotan da gauza irregularra eta hau beti ez dugun arren e(d)ukitzea da iparra bizitza alai ta pozik bizi daukat helburu bakarria alaitasunak ematen baidit eguneroko indarra izaki orok daukagulako bizirauteko beharra.
3. Gure bidea amaitzen dela bideak duen baldintza eta bidean heriotza da atea ixten dun giltza denok dakigu itxiko dela baina aurrera gabiltza gure bizitza, bizitu nahia aldarrikapena, hitza ze zentzu dauka jolasa honek? jolastu gabe bizitza?
4. Gure bidean iparra dugu gure bihotzaren sena bide onena ta gogorrena beharko degu kemena bide gogorrek itzuliko du behar dugun atsedena eta buruan dudana galdera da pertsona guztiena lehen arnasa dakigu zein den baina zein ote azkena?

nengo hilketara 10 urte pasatu zirela. Ez ziren lehenengo egunetik tiroka hasi. Lehenengo helburua euskal kultura, eta hiltzorian zegoen euskera babestea eta indartzea izan zen. Eta bide hori ere debekatzeko zutela ikusiz, bide armatura pasa ziren. ETA diktadura baten aurka sortu zela ezin da ukatu. Beste gauza da ETAk egin zuen bidez ados egotea edo ez. Baina daukagun demokraziak ez dauka zerikusirik ETArekin. Dena den, aipatutako kazetariaren idazlanak ez dute eragin askorik, gaur egun Euskal Herrian, defendatzen dituzten partido politikoekin gabehera kontuan hartzen badugu. Normaltasuna nagusitzen ari den heinean, horrela-ko jarrerak ez daukate eragi-

nik. Baina Madriletik, muturreko ahalegin horiekin jendearen pentsakera aldatzea ez du tela lortzen ikusirik, beste bide bat hartzen ari dira: Eusko Jaurlaritzak, Euskal Parlamentuak edo Udal batek hartzen duen erabakiak epaiketara eramatea. Beraien aldeko legeak sortu eta bi erakundeen arteko eztabaida sortzen bada, galtzaile ia beti, parte ahulena da. Askok gogoratzen dugu 2001an Ibarretxe lehendakariaren aurkako neurrigabeko propaganda, eta zein ondorio izan zuen: Ibarretxek inoiz baino botu gehiago lortzea. Dibertigarria izango litzateke, une haietan Espainiaren aldeko komunikabideak erabili zuten artilleria guztia azaltzea. Porrota, sekulakoa izan zen.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

**Prentsatik bildutakoak**

«[Aroztegiako proiektuaz] Garapen turistikorako zati bat dauka, hotel, bainuetxe, golf-zelai eta sparekin, baita zati erresidentziala ere, Baztan bailararentzat garrantzitsua izan daitekeena, eta guztien artean, aktore, promotore, udal, junta eta Gobernuaren artean, alternatiba posibleak adosteko baldintza egokiak ez eman izana pena bat izan da».

**Isabel ELIZALDE**  
Landa Garapen kontseilaria  
D. NOTICIAS 2016.09.18

«Motoreagoak izan daitezkeen eskualdeak ditugu: Baztan-Bidasoaldea, Tuterako aldea Ebro bailarak daukan potentzial handiarekin, Lizarraldea, Sakana... ekintzaile-kultura handia daukatena. Iratik ere potentziala dauka, landu gabeko harribitia da. Garapen motore diren natur eremuak ere baditugu, Bertiz, Urbasa, Irati, Bardeak, Bide Berdeak...».

**Isabel ELIZALDE**  
Landa Garapen kontseilaria  
D. NOTICIAS 2016.09.18

**11 galdera labur****Saltsa guztietako perexila omen zara...**

Mikologiako taldean, kontsumo taldean, irakurle taldean... batean eta bestean nabil, saltsera xamarrara naiz bai.

**Udazkenean sartuta mendi alde-  
ra begira jarri zara?**

Urte osoan nago prest mendira joan eta bueltatxoren bat egiteko. Hala ere, udazkenean, begirada lurrean izaten dut kaxkoan baino gehiago.

**Saskia eta makila eraman ohi  
dituzu?**

Ez zait gustatzen besteek onddo bila nabilela ikustea. Poltsatxo batekin aski izaten da.

**Perretxikurik preziatuena?**

Oso esker onekoa naiz. Mendira ateratzen naitzen jangarria den zerbait topatzen badut, opari bat iruditzen zait.

**Milaka espezie baina  
gutxi batzuk dute so-  
na...**

Onddo da nagusi, hala da. Baina niri gustatzen zait klase desberdinak ikusi, ezagutu eta probatzea.

**Nork erakutsi zizun onak eta  
txarrak bereizten?**

Aitak ume umetatik erakutsi zidan. Begiratzen ikasi behar izaten da, ikusi nahi bada. Koloreak, formak... bereizten trebatu.

**Mikologialdiak zer du berezia?**

Garai bateko ohitura eta ezagutza mantentzeko modua da, mendian ditugun altxorrek ezagutu eta hala, mendia zaintzearen garrantzia erakutsiz.

**Leitza ari da LeitzEko bihurtzen?**

Asko dago egiteko baina banaka batzuk ideia horrekin bat egin dutela ikusteak animatzen gaitu. Pixkanaka indartzen joanen denaren esperantza dugu.

**Herriko parajerik gustukoena?**

Bat bakarra? Mendi bat aukeratzekotan Okabio. Eta nere etxeko ataria ere asko gustatzen zait.

**Zerk egiten zaitu zo-  
riontsu?**

Nire buruarekin ahal duan pakeena egoteak.

**Amets bat?**

Inguruko baserriek bizirik irautea eta nere herria elkarlanean bizitzeko moduan sumatzea.



**Maite PERURENA → Leitzako mikologialdiko lan-taldeko kidea**

**BILTEGIA 948 630 102**  
**ANDER 687 736 929**  
Bidasoa, 76 - atea 21-22  
31780 BERA

**948 630 786**  
Altzate, 21 • BERA

**Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta  
T. (0034) 636 617 450 Instalazio Elektrikoak**

**Zalain • BERA • 948 630 052**

**BIZIKLETEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA.**  
Eta orain,  
**GIMNASTIKA  
ETA FITNESS  
MAKINAK,**  
bizikleta estatikoak  
lasterketako zintak  
...

**948 631 218**  
Kanttonberri 1, BERA  
[kateabera@telefonica.net](mailto:kateabera@telefonica.net)

MASSIMO ORBEA MERIDA SCOTT BH

**MANUEL TABERNA S.L.**  
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: **948 63 10 27** - Fax: 948 62 52 11  
[tabernabera@gmail.com](mailto:tabernabera@gmail.com)  
[www.tabernaedariak.com](http://www.tabernaedariak.com)

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
w. [www.zalain.info](http://www.zalain.info)

**Zalain**



GIZARTEA → IRAILAREN 29AN ETXALARKO BENTAN

# ERRAN.EUS udako argazki lehiaketako sariak banatu dira

Xabier Erasun eta Pello San Millan izan dira irabazleak

## TTIPI-TTAPA

Ttapi-Ttapa aldizkariak eta Xorroxin Irratiak elkarlanean antolatute bigarren aldiz udako argazki lehiaketa eta Erran.eus atariaren bidez gauzatu da. Bertara igo dituzte lehiakideek udan ateratako argazkiak. Irailaren 29an sariak banatu zituzten Etxalarko Bentan.

Lehiaketara aurkeztutako 54 argazkiren artean, Xabier Erasun Eraunzetamurgil elizondarraren *Bi langile* argazkiak irabazi du epaimahaiaren saria. Hala, Itzaltzuko Besaro landa hotelean asteburu bateko egonaldia irabazi



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Argazki lehiaketako saridunak, sari emaleak eta antolatzaileak Etxalarko Bentan.

du. ERRAN.EUS atariko ordezkariaren eskutik jaso zuen saria.

Pello San Millan arizkundarraren *Baztango erreketako lamiak* argazkia izan da publikoaren saria lortu duena. Honenbertez, Etxalarko

Benta Hotelean bilagundako otordua irabazi du eta Etxalarko Bentako Javier Ortogoren eskutik jaso du saria.

Baztango Zaporeak produktuekin osatutako saskia lehiaketan parte hartu dutenen ar-

tean zozketatu da eta hori Jabier Larretxea aranztarrari egokitu zaio. Mari Jose Brust (Irular mermeladak) eta Julen Arburua (Kortariko Gasna) izan dira sari bikaina emateaz arduratu direnak.

## URRIAREN 15EAN

Bidasoaldeko gazteen bizikleta martxa prest larunbaterako

## TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, aurten ere txirrinda martxa antolatute Bidasoaldeko gazteek, Bera eta Azkain artean, «harremanak sendotzen segitzeko».

Urriaren 15ean eginen dute. Larunbat goizeko 10etan gosaria izanen da Beran. 10:30ean Hendaiara abiatuko dira, gaztetxean ederki bazkaltzeko potearen ondotik (bazkaria debalde izanen da). 15:30ean Azkainera abiatuko dira Urruñan barna. Azkainen, gaztetxearen 9. urtebetetze bestaren ospakizuna eginen dute, eta flamenko tailerra eta kontzertuak izanen dira plaza. Kopson Fire, Kuartz, La de la société telle que nous la connaissons eta Jou Jou taldeak ariko dira.

GERTAERA → HERIOTZA LAN ISTRPUAN

# Lan baldintzak salatu dituzte Zalainen

Agustin Portu lan istripuan hil zen

## TTIPI-TTAPA

Zalain Transformados lantegian izandako lan istripuan hil zen Agustin Portu, 64 urteko langilea irailaren

28an. Heriotza hori salatze eta familiari elkartasuna adieraziz, bi orduko geldialdia egin zuten langileek irailaren 30ean eta 24 orduko greba urriaren 3an.

Langileen Batzordeak bizi dituzten lan baldintzak salatu dituzte, «gure osasunarentzako



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Lan uzteak, grebak eta elkarretaratzeak egin dituzte Zalainen, heriotza salatze.

seguruak ez diren lan baldintzekin, gure kidea zenaren heriotzak frogatzen duen moduan». Horregatik, zuzendaritzari istripua gertatu zen

egoera zehatza argitze-ko beharrezkoa den esfortzu guztia egitea eta berriro gertatzeko arriskua desagerraraztea exijitu diote. Batzordea-

ren ustez, «segurtasun eskasiak enpresetan bi-ziak eta osasuna arriskuan paratzen ditu, honen 180°ko aldaketa behar du».



**Gureaut**  
**TAILERRAK**

Mekanika, elektrizitatea, Ibilgailuen salerosketa

Datuegibela, 10 - Elizondo | T. 948 580 225  
M. 619 328 145 | gureauto2@gmail.com

**IPINGI**

Santiago 130  
ELIZONDO  
T. 948 580 939  
info@ipingi.es

ARROPA eta OSAGARRIAK

www.ipingi.es



OSPAKIZUNETARAKO JANTZIAK

## ELIZONDOKO FERIAK

URRIAREN 28 ETA 29AN

### Urriko azken egunek feria giroa dakarte



Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, udazkenarekin batera heldu dira feriak. Elizondokoak izanen dira lehenbizikoak eta Elizondoko Herriak antolatuta, urriaren 28 eta 29an izanen da hitzordua, beti bezala, ortziral eta larunbatez. Aziendak ikusi eta traturen bat egin, pagotxen bila ibili, besta egin... denetarako aukera izanen da ferietan.

Goizeko 10etatik eguerdira arte azienden erakusketa egingen dute Merkatu Plazan.

Ortziral goizeko 10etatik eguerdira bitarte garai bateko itxura hartuko du Merkatu Plazak; inguruko azienda ederrenak bertan ikusgai egonen dira. Laxoa Plazan berriz, makineria erakusketa eguerdira arte egonen da ikusgai. Eta ortziral eta larunbatean, egun osoz, Elizondoko karriketan jarriko dituzten postuetan nekazaritzako lehen-gaiak, tresnak, jakiak, arropak... erosi eta Sahararen aldeko tonbolan parte-hartzeko aukera ere izanen da.

ELIZONDOKO plazan  
EROSKI CITY

BEAARRAINDEGIA

esarte



Astelehenetik Larunbatera 09:00-21:00  
Santiago 12 · ELIZONDO · T. 948 580 005

**EROSKI** city





**Lupe ZUBELDIA | Saharaztan elkarteko kidea**

# «Tonbolako irabaziekin udaran Saharatik etortzen diren haurren bidaiak ordaintzen ditugu»

Elizondoko ferietan izaten diren ehunka posturen artean, urtero jarri ohi du berea Saharaztan elkartek. Bertan, tonbolako sariak erroskila goxoen usainarekin nahasten dira. Ortziralean eta larunbatean, goiz eta arratsalde, jartzen dute postua eta arrakasta handia izaten du «3.000 boleto inguru saltzen ditugu eta Arizkungo taldetxo batek egiten dituen dozenaka etxeko erroskila ere bai». Boleto saridunak, batzuk, saririk gabekoak berteak «Sahararekiko elkartasun keinuak dira denak». Elkartasuna tonbolan eta baita aitzinetik ere, «eskualdeko komertzio eta enpresen laguntza azpimarratu behar da, beraiek ematen dituzte eta sariak osatu ahal izateko puskak».



## «Basamortuko bizimodua hagitz gogorra da. Kanpoko laguntzen bidez bizi dira, lana egiteko ere arras aukera guti dute»

Elkartek duen diru-iturri garrantzitsuenetakoa da tonbola «udan Saharatik etortzen diren haurren bidaiak ordaintzen ditugu irabaziekin». 30 haur etorri dira aurtengoan eta «kopurua handia da», are gehiago laguntzak urriak direnean «Zonaldeko udaletxe batzuk diru-laguntza ematen dute baina bertzerik ez da izaten. Kamiseta salmentak, boletoak, Elkartasun eguna... dira gure diru-iturriak».

### SAHARAREKIN HARTU-EMAN ESTUA

Duela bortz urte inguru sartu zen Lupe Saharaztan elkartean «senarraren lehen-gusina batek Saharako neska bat hartzen zuen udan eta familia behar zirela ikusita animatu egin ginen». Aurten, Bakelekuko proiektuan aritu da lanean eta «arras esperientzia ona» izan dela dio.

Saharaztan elkartea hogeitaz gero familietatik goitik osatzen dute eta Sahararekin duten hartu-eman estua da «urte osoan zehar gure laguntza izaten dute. Sendagaiak, elikagaiak... behar badituzte bilketa kanpaina bereziak egiten ditugu. Iazko abenduan adibidez, uholdeak izan ziren Saharan eta diru-bilketa kanpaina bat egin genuen. Lortutako dirua eramanez bertara bidaiatu zuten elkarteko kide batzuk eta behar ziren gauzak erosi eta etxeak eraikitzen lagundu zieten».

### BEHARREZKOA DEN LAGUNTZA

Sahararrek aitzinera egin ahal izateko denen laguntza beharrezkoa dela dio «elkarteko kide izan nahi duenak aski du guregana hurbiltzea. Denak ongi etorriak izanen dira. Batean edo bertzean, bakoitzak ahal duena eginez, ziur izanen dutela laguntzeko modua». Horretaz gain, dirua emanez, tonbolan boletoak erosiz... Saharaztanek antolatzen dituen ekimenean parte hartzen dutenei ere eskerrak eman nahi izan dizkie «arras kontent gaude, edozein gauza antolatzen dugularik erantzuna oso ona izaten delako».



# ferreteria Quevedo

TXERRI HILTZEAN ERABILTZEKO TRESNAK

ferreteria Quevedo

Santiago 31 • ELIZONDO  
Tel. 94 580 234  
www.ferreteriaquevedo.com

## ANTIXITONEA

### Trinketea

24 logela bainuarekin · Aparkalekua  
Aire girotua gela guztietan · Hari musikala eta TB  
Gela berexia sukalde eta hotel zerbitzuarekin

## FERIETAKO MENUA

Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853  
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com



**Mañonea Agentzia S.L.**

**GENERALI**  
Aseguruak  
AGENTE ESCLUSIBO A Erregistro Zkta.: C0072871193304

[www.manoneasegursl.seguros.generalis.es](http://www.manoneasegursl.seguros.generalis.es)

ELIZONDO BAZTAN - NAFARROA  
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43 | [manoneasegur@generalimediadores.es](mailto:manoneasegur@generalimediadores.es)

**KONTABLE, ZERGA, LAN eta JURIDIKO AHOLKULARITZA**

[www.mainoneaagentzia.com](http://www.mainoneaagentzia.com)  
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43  
[mainonea@mainoneaagentzia.com](mailto:mainonea@mainoneaagentzia.com)

**Malkorra**

Txokolatea urrekin egina  
Tartak eta pastelak | Etxean egindako izozkia



Santiago, 15 | T. 948 580 061 | ELIZONDO  
[www.malkorra.com](http://www.malkorra.com)

**Albaitaritza**

[www.albaitaritza.com](http://www.albaitaritza.com)  
Tlfno.: 948 580 980

**Materiala Botika Hazia**

**Osagarri mineralak**  
Bildots eta aratxeendako esnea  
Xaboi eta desinfektatzaileak

**Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktuak**

**Albaitack**  
[www.albaitack.com](http://www.albaitack.com)  
Tlfno.: 948 506 169

**ALBAIKIDE**

Tfnoa.: 902 169 169  
[www.albaikide.com](http://www.albaikide.com)  
Albaitari zerbitzua



ELIZONDOKO 29.LEHIAKETA-ENKANTEA

# Pirinioetako arrazaren alde egindako apustua

23 abeltzainek, 215 buru inguru eraman zituzten Elizondoko Merkatu Plazara eta horietatik, 170 aurkeztu zituzten lehiaketa-enkantera

Aurten 29. edizioa bete du Piriniar arrazako behien estatu mailako lehiaketa-enkanteak. Buru hobereenak hartuta Euskal Herri osoko abeltzainak bildu ziren; 14 Nafarroakoak ziren, 6 Bizkaitik etorriak eta 3 Gipuzkoatik. Hamabi kategoriatan banatuta, 70 bat sari eman zituzten eta Juan Miguel Inarrea *Bibi* zenaren omenez banatzen dutena, Arraiozko Elizaldeko Javier Garde eta Isabel Laurnaga senar-emazteek eta Alvaro eta Javier semeek jaso zuten, bere ustiategiaren kalitatearengatik. Atal bakoitzeko irabazleak joarea eta 90 euro jaso zituen saritzat, 70 euro bigarrenak eta 50 euro hirugarrenak.



## SARIDUNAK

### URRUXAK

#### 8-12 hilabete:

1. Juan Jose Urteaga
2. Maria Nela Vittorini
3. Juan Jose Iñarrea
4. Ricardo Palacios
5. Carlos eta Laura Oroz

#### 12-18 hilabete

1. Gregorio Iraola
2. Isabel Laurnaga )
3. Gregorio Iraola
4. Jon Koldo Bikandi
5. Maria Nela Vittorini

#### 18-24 hilabete:

1. Leire Amundarain
2. Jon Koldo Bikandi
3. Gregorio Iraola
4. Isabel Ibarrola
5. Isabel Laurnaga

#### 2-3 urte:

1. Juan Antonio Ustarroz
2. Maria Nela Vittorini
3. Prudencio Urkia
4. Jon Koldo Bikandi
5. Gregorio Iraola

#### 3-4 urtekoak umatuak:

1. Maria Nela Vittorini
2. Prudencio Urkia
3. Jon Koldo Bikandi
4. Jesus Ostiz
5. Jose Antonio Sorbet

### Ugalketarako:

Juan Luis Irazola

#### 4-6 urtekoak umatuak:

1. Gregorio Iraola
2. Carlos eta Laura Oroz
3. Isabel Ibarrola
4. Maria Nela Vittorini
5. Asier Bilbao

### Ugalketarako:

Ricardo Palacios

#### 6-8 urtekoak umatuak:

1. Jon Koldo Bikandi
2. Joseba Rekalde
3. Ricardo Palacios
4. Leire Amundarain
5. Isabel Ibarrola

### Ugalketarako:

Joseba Rekalde

#### 8-12 urtekoak umatuak:

1. Gregorio Iraola
2. Juan Jose Urteaga
3. Jon Koldo Bikandi
4. Isabel Ibarrola
5. Carlos eta Laura Oroz

### Ugalketarako:

Ricardo Palacios

#### 12 urtetik goitiko umatuak:

1. Carlos eta Laura Oroz
2. Isabel Ibarrola
3. Leire Amundarain
4. Isabel Laurnaga
5. Maria Nella Vittorini

### Ugalketarako:

Carlos eta Laura Oroz  
**ZEZENKOAK**

#### 24 hilabete artekoak:

1. Asier Bilbao
2. Isabel Ibarrola
3. Jon Koldo Bikandi
4. Isabel Laurnaga
5. Carlos eta Laura Oroz

#### 2 eta 4 urte artekoak:

1. Asier Bilbao
2. Jon Koldo Bikandi
3. Isabel Ibarrola
4. Joseba Rekalde
5. Teodora Mitxelena

#### 4 urtetik goitikoak:

1. Garikoitz Nazabal
2. Isabel Laurnaga
3. Gregorio Iraola
4. Teodora Mitxelena

#### \*Sari bereziak:

Baztango arrik onena:  
Isabel Laurnaga

Baztango emerik onena:  
Isabel Laurnaga

Ustiategiaren ugalkortasuna:  
Irigoien Rearte eta Rearte

*Bibi* saria: Isabel Laurnaga



**Alvaro GARDE | Arraiozko Elizalde baserria**

# «Aziendak plazara ateratzeko lan aunitz egin behar da, erakustoki hoberena da»

Zer ikusi, hura ikasi dio esaera zaharrak eta Alvaroren kasuan halaxe izan zen «titikitatik etxean izan ditugu aziendak, bai aitaxiret etxean eta baita gure sortetxean ere. Gurasoek beraiekin eramaten ninduten eta afizioa ere txiki txikitatik izan dut». Eta etxean ez zutena, kanpoan bilatzen zuen «ardirik ez genuen baina barri-deak bai eta eskolatik ateratakoan egunero joaten nintzen berari laguntzera. Azkenean gurasoak erran zidaten 'nahi badituzu ardiak komunioko diruarekin eros itzazu' eta hala egin nuen».

**«Urriko ferietan ikusten da Elizondoko herriak feria bizirik mantentzeko eta bere garrantzia azpimarratzeko egin duen apustua».**

Koxkortu ahala aspertuko zela aditu izan du behin baino gehiagotan baina denborak ez die arrazoia eman hori ziotenei «ni seguru nintzen aziendekin segitu nahi nuela, bizitzen nuen zerbait zela. 12 urte bete nituen, 15 gero... eta ikusi nuen segi nahi nuela eta orain 22rekin ere bai».

## AFIZIOA

Abeltzaintzatik bizitzea ez dela erraza badaki, «abeltzaintza eta lehenengo sektorea orokorrean, ez dago ongi baloratua eta gobernuak oraindik ez du bultzatzeko apustu handiegirik egin, diru-laguntza askorik ez du ematen». Horregatik agian,



abeltzaintza ofizio baino afiziotzat du «pedagogia terapeutikoko ikasketak bukatu, irakasle lanetan aritu eta etxean aldi berean aziendak eduki nahiko nituzke». Benetan gustatu beharreko zerbait da bere ustez «hemen oporrik ez da. Aziendek egunero jaten dute eta egunero joan behar duzu haiengana. Behiak belaira bota eta horrekin guztia egina dagoela uste dute batzuk baina zaindu eta kontrol bat eraman beharra duzu».

## PIRINIAR ARRAZA

Ttikia zelarik, sei zazpi behi zituzten etxean «mestizoak, blondak...» eta 2003an hasi ziren Piriniar arrazako behiak hazten «Elizondoko lehenbiziko lehiaketa-enkantea egin zen 2003an eta bertan piriniar arra-

**hiru** ... betikoa baina ezberdina  
ostatua  
Baztan Berri 7 B | ELIZONDO  
T 948 581 219

Ongi pasa feriak!

Kaxulak, plater konbinatuak, bokatak, pizzak, hamburgesak, ensaladak, fritoak...  
Etorri eta dastatu gure berezitasunak!

BASTIDATIK ekarritako ARDOAK: Montebuena, Solagüen ardo beltz ondua eta Solagüen txuria  
Infusioak zapore guztietakoak  
Eskoziar eta Irlandar kafeak

**onegin** Herbodietetika Ekodenda

• Dietista  
• Nutrizionista  
• Test genetikokoak:  
zeliakia test genetikoa barne  
• biocuantum eta IOMET testak  
• Coach Nutrizionala  
• Grasa, giharra, ur retentzioaren neurketa  
• Naturista  
• Homeopatia  
• Opariak, zapatak  
• Salmenta granelean  
• Elikadura ekologikoa

ONGI PASA FERIAKI!

Jaime Urrutia, 26 Behea  
31700 ELIZONDO  
948 581 932 oneginelizondo@gmail.com

**LABORRA ARKITEKTOAK**  
-Gabriel & Ines-  
Santiago 66, 1º - Elizondo - 948.580.122

Zuen etxebizitza-erakina  
**50 urte** baino gehiago ditu?

Eraikinen Ebaluazio Txostena egiteko momentua da.

**IEE**

Derigorrezkoa: 108/2014 Dekretu Foralaren arabera  
**www.laborra.com**

**ZER GALAN** aholkularitza  
www.zergalan.es  
info@zergalan.es

**ZERBITZU FISKALAK**

- Aholkularitza fiskala
- Zerga agiriak
- Errenta aitortpenak
- BEZ aitortpenak
- Sozietate zergak
- Zure negozioaren zergen kontrola

**KONTABILITATE ZERBITZUAK**

- Kontabilitatean aholkularitza
- Enpresen erekitzea
- Kontabilitatearen eramatea
- Administrari zerbitzuak
- Merkataritza-erregistroan urteko kontuen aurkezpena

**BERTZE ZERBITZUAK**

- Jubilazioen eramatea
- Ezgaitasunen eramatea
- Lan eta erresidentzi baimenen eramatea
- Aita eta amatasun bajak
- Langabezi kapitalizazioak
- Diru-laguntzak
- Negozioen bideragarritasunen eramatea

Ongi pasa feriak!

Baztanberri plaza, 6  
31700 ELIZONDO  
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eliza Kalea, 22  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



# ALMACO BAZTAN

GRUP **GAMMA**

[www.almacobaztan.com](http://www.almacobaztan.com)



hotza heldu da!



**berria!**  
... etorri  
ikustera!



Errepide nagusia, Elizondo

Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857

## EGUR-PROZESADOREA ORAIN HAUNDIAGOA ETA AZKARRAGOA



**TAJFUN**

[www.tajfun.com](http://www.tajfun.com)



BERRIA

**RCA 480 JOY  
RCA 480 JOY PLUS**

**BISITA GAITZAZU ELIZONDOKO FERIETAN!!!**



**ARoz-BERRI, S.A.**

Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - Fax 948 452 103  
[irurita@arozberri.com](mailto:irurita@arozberri.com) - Ctra. NA-8307, km 0'8 - 31730 IRURITA (Navarra)

[www.arozberri.com](http://www.arozberri.com)



## Alvaro GARDE LAURNAGA | Arraiozko Elizalde baserria

13. orrialdeko elkarrizketaren segida.



Garde-Laurnaga familia,  
Elizondoko Lehiaketa-  
Enkantean irabazitako  
sariekin.

za ezagutu eta familia guztiari gustatu zitzaigun. Erabaki genuen arraza hori paratzen hasia eta hiru miga eta zezen bat erosi genituen». Egindako apustua-ekin kontent daude «ikusitako guk genituenak baino maneju hobea gokoak zirela, ugaltzeko garaian batez ere; erditzekoan eta ernari geratzekoan. Gaur egun behi guztiak arraza honetakoak ditugu».

### SARITUTAKO LANA

Elizondoko lehiaketa-enkantean saria izan du egiten dutenak lanak «Bibi saria aurten bigarrenaz jaso dugu. Guretzako sari berezia da Bibirekin erlazio arras ona izan genuen eta hein handi batean berari esker animatu ginen plazetara. Guretzako erreferente bat izan zen». Sariak «urte osoko lanaren erakusle» direla dio «helburua gure produktua jendaurrera ateratzea da eta gero saltzeko aukera izatea».

### ANTOLAKUNTZAN ERE BAI

Lehiaketa-enkantean parte hartzeaz gain, antolakuntza lanetan ere ibiltzen da Alvaro «2013an hasi nintzen ordura arte Bibi egiten zuen lana egiten eta arras gustura ibiltzen naiz. Babesleak bilatu, kartelak paratu, boletoen kudeaketa egin...»

### FERIAKO GIROA

Duen afizioa ikusirik ez da harrizkoa feriazalea izatea «bertze edozein tokitan baino gehiago disfrutatzen dut. Abeltzainekin solastu, aziendetaz disfrutatu...». Elizondokoak gainera, bereziki maite ditu «feriek indar ikaragarria hartu dute, Elizondoko herriak apustua egin du feria bizirik mantentzeko eta zeraman martxa txar horri buelta emateko. Azken lau bortz urtetan nabari da alde». Merkatu plazan izanen dira aurtengoan ere Elizaldeko aziendak «Elizondoko herriak eskatzen die abeltzainei aziendak eramateko».

### ETORKIZUNARI BURUZ BAIKOR

Abeltzaintzaren etorkizunari buruz galde-tuta, arras ikuspegi positiboa du «lehiaketan gazteri pila batek parte hartu du, desfilera ateratzen ziren aunitz gazteak ziren. Lehiaketetan abeltzainen seme-alabak ikusten dira behiak bazkatzen, garbitzen eta haiekin paseoan. Horrek ilusioa sortzen du, ikusten da ez dela itzaltzen ari, badela segida». Eta Elizondoko feriei buruz ere halatsu solasten du «indartzeko lan egin da eta emaitzak eman dituela nabari da. Uste dut feriek ondorengo urteetan ere segida izanen dutela».

Tel. 948 452 394  
Saskaitz Plaza,  
31700 Elizondo

# Maitere

Aseguru agentzia - Agencia de seguros

Allianz



Santiago 83 B bajo  
31700 Elizondo  
T 948 581 907

[www.precocinadosesarte.com](http://www.precocinadosesarte.com)

## ELBETEKO POSADA

6 logela bainugelarekin  
eta egongela bat

- Eguneko menua
- Karta
- Enpresa otorduak
- Afaltzeko plater bereziak prezio berezian
- Bataioak ...

Karrikaundi z/g  
**ELBETE**  
T. 948 581 519  
[info@posadaelbete.com](mailto:info@posadaelbete.com)



[www.posadaelbete.com](http://www.posadaelbete.com)

TTIPI-TTAPA  
ALDIZKARIA  
SARE SOZIALETAN

facebook

[www.facebook.com/ttipi.ttapa](http://www.facebook.com/ttipi.ttapa)  
[www.facebook.com/ttipi.eus](http://www.facebook.com/ttipi.eus)

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN



## ALDAKETA OPERAZIOA | Motozerra zaharra ekarri

PSP tarifa 269 €  
Deskontua -70 €  
**199€**  
PSP aldaketa operazioarekin

HUSQVARNA 236

PSP tarifa 399 €  
Deskontua -100 €  
**299€**  
PSP aldaketa operazioarekin

HUSQVARNA 435

Eskaintza baliagarria 2017-01-31arte. Prezioak BEZ barne.

**BBBIOK BAT**  
TALLERES

Husqvarna

C/ Santiago, N°85 | ELIZONDO (NAVARRA)  
[www.biokbat.com](http://www.biokbat.com)  
Tel: (+0034) 948 580 898





**ESKISAROI  
JATETXEA**  
*ongi pasa feriak!*  
T. 948 580 013  
Jaime Urrutia • ELIZONDO

**GOÑI**  
harategia  
*ongi pasa feriak!*  
Mendinueta, 3 • ELIZONDO • T. 948 580 164

ostatura  
**GOIZALDE**  
MENUAK • KAXULAK • BOKATAK • PINTXOAK  
948 581 334 | Jaime Urrutia,8 | ELIZONDO  
ONGI PASA FERIAK!!!  
**TXOKOTO**  
MENUAK • KAXULAK • BOKATAK • PINTXOAK  
948 580 349 | Braulio Iriarte 25 | ELIZONDO




**Maria Jesus LARRETxea | Elizondoko gasnagilea**

«Ferien jendeari gure lana erakutsi eta nondik heldu garen azaltzeko modua dugu»

Elizondoko Etxetxipia gasnaren izena, munduan barna ibili da abuztuan. *Great taste awards* nazioarteko sukaldaritza lehiaketan parte hartu eta 10.000 jakiren artean aukeratua izan baita. Otsailean erran zieten lehiaketan parte hartzeko aukera zutela eta gasna bat Londresera bidali zuten «aukera hori izatearekin, ni kontent nintzen. Abuztuan deitu eta erran zigutelarik Europako 100 lehenbizikoetan sartu ginela, poza handia izan zen». Aurrez tutako gasna «berria zen, gasna zahar dena akitua zegoen. Ez zegoen aunitzik aukeratzeko eta harekin saria hartu!». Saria hartu ondotik, «bateko eta berteko jendeak zoriondu gaitu baina guk segitzen dugu betiko moduan, betiko bezeroekin, betiko martxan...»



«Poz handia eman digu sariak baina, guk beti bezela segitzen dugu lanean ilusioz. Jendeak erosten du gure gasna eta pozik gara»

**BIZITZEKO MODU BAT**

Senarra eta biak aritzen dira gasnategian «duela 34 urte ezkondu ginen eta orduan hasi ginen ardiekin eta gasna egiten. Etxean hasi ginen eta aitzinera egitea erabaki genuen. 30 bat urte dira gasnategia egin genuenetik».

Biendako lan aunitz dela dio «ardiak zaindu, bazkatu, jetzi, gasna egin, zaindu, saldu. Lan dexente dago. Behar duzu neurri bat hartu, bakoitzaren arabera zenbat egiten ahal den ikusi». Egindakoa saltzea izaten da hurrengo pausoa «alaba zaharrenak laguntzen digu horretan. Elizondon baditugu denda batzuk, harategi batzuk... baina Elizondon ekoizleek antolatzen ditugun ferietan saltzen dugu gehien, zuzenean jendeari salduz».

Maria Jesusek maite du bere ogibidea «dena polita da, prozesu guzia. Artalde polita osatzen duzu, ardiak zaintzen dituzu, gasna egin... bakoitzak bere xarma du». Gogorrena «ardiak erditzen hasiz geroztik ez duzula egunik libre izaten. Zenbait hilabete egiten dituzu egunero egunero, goiz eta arrats, gasna egiten». Ilusioa da berarentzat aurrera egiteko giltza «ilusioz aritu gara lanean, jendeak erosten du gure gasna eta pozik gara».



**arteka 20<sup>th</sup> FLOOR**  
arkitektura eta zerbitzuak

[www.artekabaztan.com](http://www.artekabaztan.com)

Balda medikua plaza 1- 1A 31700 Elizondo. Nafarroa 948 580 610







Elizondoko feriak iristean, tartetxo bat hartzen du bueltaxka emateko «posturik ez dugu jartzen. Harpatzen dugu hain handia eta hainbertze jende izaten da...». Aukeran, Elizondoko plazan ekoizleek antolatzen dituzten azokak nahiago ditu «ferian jendeari gure lana erakutsi eta nondik heldu garen azaltzeko modua dugu. Jendeari gustatzen zaio jakitea gauzak nola egiten diren eta nondik heldu garen. Galdera aunitz egiten dituzte eta gu ere gustura egoten gara gure lana esplikatuz». Gainera, azken urteetan azoka giro horrek indarra hartu duela iduritzen zaio «jendea etortzen da plazara erostera, ikusten da mugimendu pixka bat. Bertzenaz ez ginen hor ibiliko».

#### LEHEN SEKTOREAREN ETORKIZUNA

Lehen sektoreak dituen erronkei aurre egitea zail dela aipatu du «nekazariok

ez dugu eskutik deus ere, laguntzak lortzeko ere sobera burokrrazia dago». Paper artean galtzea ere ez da harrizkoa, «hainbertze paper dira... eta bakarren batean huts egiten baduzu laguntza murrizten dizute» eta laguntza

**«Nekazariok ez dugu eskutik deus ere, laguntzak lortzeko sobera burokrrazia dago».**

**«Gauzak lortzeko bidea erraztu behar da, bertzenaz jendea izutu egiten da. Baserriak hutsik geratzen ari dira».**

#### IRTENBIDEA

Egoerak hobera egiteko «laguntzak eta baimenak lortzeko bidea erraztu behar da, bertzenaz jendea izutu egiten da. Baserriak hutsik geratzen ari dira». Segurtasun ezari ere irtebideren bat eman beharko litzaiokie «urte batean badituzu laguntzak baina hurrengoan ez dakizu... zerbait finkatu beharko litzateke».

horiek gabe «ez da bizitzetik». Izan ere, al baitari lanak, abeltzainenak... denetarik egin behar izaten dute «denetara ikasi eta horretaz gain, administrazio lanak egin behar baditugu... denetarako ez dugu astirik».

**ARKUPE**  
*Txokolategiak*  
1984

IRURITA  
Dukea plaza  
T 948580059  
T 948452021  
(Obradorea)

ELIZONDO  
Santiago kalea 19  
T 948452393

www.arkupegozotegia.com

## ANZABAL

### INMOBILIARIA

- Zurich Aseguruak  
Autoa, etxebizitza, istripu eta bitzita aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala  
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria  
Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

**J B Iturria**  
**CONSTRUCCIONES**

Etxebizitza salmenta  
Fatxaden birgaitzea  
Lur mugimenduak  
Teilatuak  
Jar ezazu zure  
proiektua gure eskutan!

Baztanberri Plaza, 2 - behea  
31700 ELIZONDO  
T. 948 580 304  
info@jbiturria.com

[www.jbiturria.com](http://www.jbiturria.com)





## BERA

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 23AN

# Aldaketekin dator 30 urte beteko ditu Lurraren Eguna

Barazkiak  
Illekueta aldeko  
Merkatuko  
Plazan ikusgai

## TTIPI-TTAPA

Ohiturari eutsiz, urriko laugarren igandean ospatuko da Lurraren Eguna Beran. 30. edizioa beteko du Gure Txokoak Kultur Batzordearen laguntzarekin antolatutako ekitaldiak eta hilaren 23an egingen da, zenbait aldaketarekin.

Bezperako egitaraua ere urtetik urtera osatuagoa izaten da. Larunbatean, 11:30ean Jakoba Errekondok "Bizi baratzea" solasaldia eskainiko du Beralandetan. 15:30ean ttipien lasterketak egingen dira eta 17:00etan Lizuniagako igoeraren 36. edizioa. 18:30ean "Urtebete Beran" argazki era-

kusketa irekiko da Labiaga Ikastolan. Aurten, hamargarren edizioa beteko duen barazki opil lehiaketa 19:00etan egingen da Altzateko frontoian, trikitalariek lagunduta. 100 euroko saria jasoko du irabazleak.

## GASNA ETA SAGARDO LEHIAKETAK IGANDEAN

Igandea izanen da egun nagusia. 09:00etarako lehiaketarako gaztak eta sagardo botilak eraman beharko dira Ricardo Baroja eskolara eta barazkiak Merkaturako Plazara (Illekueta aldean). 10:00etatik aitzinera eskulangile eta elikadura azoka egingen dira eskola inguruan, bai ta barazki, fruitu eta lore erakusketa, Olakoren erakusketa eta Txiki Txef sukaldari besta ere Merkaturako Plazan (Altzateko plazaren parean, Illekueta aldean. 10:30ean txistulariak, zeltiar



UTZITAKO ARGAZKIA

## 110 txirindulari Berako BTT mendi bizikleta ibilaldian

Gure Txokoa elkarteak antolatutako Berako XXIII. mendi bizikleta ibilaldia egin zen irailaren 25ean. Matxada futbol zelaia obretan dagoenez, irteera-helmuga puntua lamotenean izan zuten parte hartu zuten 71 helduk eta 39 hurrek.

musika eta Irats trikitalariak izanen dira Altzateko plazan. 11:00etan hasiko da Bortzirietako 30. Gasna lehiaketa eta Bera Eskolako trikitalariak kalejiran abiatuko dira. Eguerdian, 19. Sagardo Lehiaketa egingen da Karnaxenean eta kalejiran aterako dira Musika Eskolako eta bandako musikariak. Bi lehiaketetan parte hartzeko Bortzirietako ekoizlea izan behar da. Gazta lehiaketa irabazten duenak 300 euroko saria eta oroigarri bat eramanen ditu eta bigarrenak 100 euroko saria. Sagardo lehiaketako irabazleak, berriz, 200 euro eskuratuko ditu eta bigarrenak 75 euro.

Arratsaldean ere se-

gituko du bestak. 16:30ean hasita Altzateko Plazan haurrentako musika saioa eskainiko du Oharkabe taldeak. 17:00etan herri kirolak izanen dira: Nafarroako arpana txapelketa mistoa eta harri-jasotze era-

kustaldia. Sari banaketa egingen da bertsolariekin eta horrekin batera enkantea, eta dan-tzaldia Oharkabe taldearekin. Egun guztian musika, taloak, eta jaki eta edariak dastatzeko aukera izanen da.

## URRIAREN 22AN IRUÑEAN ETA 29AN BERAN

### Dantza hizpide lamotenean ere

Nafarroako Dantzarien Biltzarrak, Nafarroako Gobernuaren, Iruñeko Udalaren eta Berako Gure Txokoa elkartearen laguntzaz *Dantzari buruz solas dezagun* kafe tertuliak antolatu ditu. Lehenbizikoa urriaren 8an egin zuten lamotenean. Urriaren 22an, Iruñean, *Dantza, tradizioa edo modernitatea?* eta *Dantza federazio baten etorkizuneko erronkak* izanen dituzte solasgai.

Urriaren 29an, berriz ere Gure Txokoa elkartearen egoitzan izanen dira hitzaldiak. 12:00etan *dantza eta erlijioa* eta 16:00etan, *Musika zuzenean edo grabatua?*



Sukalde berriaren diseinu eta gremio guztien koordinazioa.

**Utzi gure esku zure sukalde berria!**

*Jauren*

T. denda 948 631 217 | T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA | jaurenabera@gmail.com

**Elektrizitate lanak orokorrean**  
**Erreformat, etxe berriak**  
**Lantegietako mantenu lanak**

Elektragailuen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa.  
Antenak, satelite bidezko instalazioak.

**banatzaile ofizialak**






## Nerbio-sistema osasuntsua, gorputz osasuntsu baten ardatza delako

Berako Kanttonberri karrikan dagoen **Quirovital Zentroa** kiropraktika lantzen duen bakarra da eskualdean. Parisen urte luzez lanean aritu ondotik, duela urte bete hartu zuen **Arnaud Mante** doktore kiropraktikoak zentroaren ardura. Geroztik, ehunka bezero jarri dira bere esku-etan.


Gorputza ehuneko ehunean lan egiteko gai izatea da kiropraktikaren helburua eta hori lortzeko bizkarrezur eta nerbio-sistemaren arteko lotura baliatzen dute. Bizkarrezurrean egon litezkeen alterazioen diagnostia egiten dute eta bezeroen gorputzei euren onera etortzeko laguntza eskaintzen diete kiropraktika baliatuta. Metodo naturala da, botikarik, kirurgiarik eta masajerik gabea, eta gorputzak bere onera etortzeko duen gaitasunean du oinarria. Min zehatz bat zuzenean tratatu beharrean, mina hori eragiten duen sorreran lan egiten da, eta onura ere, fisikoki eta emozionalki nabaritzen da.

Bizkarrezur eta nerbio-sistemaren arteko lotura baliatzen du kiropraktikak, organismoa bera arduratzen da beste guztiaz.



Nerbio sistemak gorputzeko organo eta egitura guztiak kontrolatu eta koordinatzen ditu  
*Gray's Anatomy Textbook*

**ZURE BIZKARREZURRAK**  
Garuna | Nerbioak  
Giharrak | Sahiets-hezurak  
Besoak | Aldakak | Hankak  
Organoak | Koordinazioa  
Indarra | Autoestima  
Ongizatea | Elikadura  
Osasuna  
**MARTXAN JARTZEN DITU**



Horregatik, behar desberdinak dituzten pertsonak joan ohi dira kiropraktikora laguntza eskatuz:

- Bizkarreko minak
- Ziatika
- Buruko minak
- Eskoliosia
- Arazo posturalak
- Asma
- Lixeriketa arazoak
- Hilekoarekin arazoak
- Lunbalgia
- Timitusa

Kontsulta pertsonalizatuz gain, osasun tailerrak ere eskaintzen dituzte Berako Quirovital zentroan:

- asma eta alergiak,
- artrosia,
- akuiferoak...

arazoak saihestu eta ariketa eta gomendioak ere eskaintzen dituzte.

Kanttonberri, 1-1C | **BERA** | Tel.: 948 631 403  
bera.quirovital@gmail.com



## LESAKA

KIROLA → URRIAREN 30EAN

# I. Tren Txikito Lasterketa antolatu du Udal kiroldegiak

Hiru ibilbide izanen ditu aukeran, 6, 12 eta 17 kilometrokoak

## Aitor AROTZENA

Bidasoko Trenbideak ehun urte bete dituela eta uda partean erakusketa ederra ikusgai izan zen Harriondoan. Ospakizunei nolabait segida emateko, Udal kiroldegiak lehen aldiz Lesakako Tren Txikito Lasterketa antolatu du urriaren 30erako.

Korrikalariak hiru ibilbide izanen dituzte aukeran: 6 kilometrokoa (Lesaka-Berrizaun), 12 kilometrokoa (Lesaka-Berrizaun-Lesaka) eta 17 kilometrokoa (Lesaka-Berrizaun-Harkaitzako iturria-Lesaka).

Izen ematea [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgurenean bidez egin daitezke gaugerero. Kiroldegiko abonatuak edo federatuak 5 euro ordaindu beharko dituzte eta abonatuak edo federatuak ez direnek 8 euro. Egun berean izena emanez gero 12 euro ordaindu beharko da. Informazio gehiago 948 637400 telefonoan edo [kiroldegia@lesaka.eus](mailto:kiroldegia@lesaka.eus) helbide elektronikokoan jaso daitezke.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Onddo kolpe polita udazken hasieran

Gehiago-guttixeago, udazken hasiera honetan mendira onddo bila joan denak ekarri izanen ditu ale batzuk etxera. Baina gutti izanen dira argazkian ageri denaren tamainakoak. Irailaren 30ean bildu zuen Axier del Pozo Telletxeak. Aner semeak harro erakusten du ia 800 gramoko onddo ederra.

## URRIAREN 21 EAN

### San Fermin elkartearen Egunean omenaldiak izanen dira

#### Aitor AROTZENA

San Fermin jubilatuta Elkartearen Eguna urriaren 21 ean, hurrengo ortziralean ospatuko dute. Aurten ere, Diamantezko eta Urrezko Ezteiak ospatzen dituzten bikoteei eta 85 urte betetzen dituzten bazkideei omenaldia eskainiko zaie.

Eguneko egitarauan ez da aldatuta handirik izanen. 12:30ean Meza Nagusia ospatuko da San Martin elizan. 13:30ean Aurrezkoa eskainiko zaie plazan omenduei. 14:00etan bazkaria izanen dute udal pilotalekuan. Bazkarondoan, omenaldiak egingen dituzte. 17:00etan elkarrekin an-

tolatutako txapelketa ezberdinetako sariak eta trofeoak banatuko dituzte eta 17:30ean animatuenek dantzatzeko aukera ere izanen dute.

Bazkarirako izen ematea elkartearen bertan edo Nafarroako Kutxako bulegoan egin daitezke, urriaren 16ra bitarte.

## FLASH

### Antzerki musikala larunbatean Harriondoan

Enpresaria, Mozartek konposatutako antzerki musikala lehen aldiz euskaraz ikusgai izanen da urriaren 15ean, larunbatean 19:00etan Harriondo Kultur Etxean. Sarrera 10 euro gostako da.

### Hitzaldia eta haur ikuskizuna Bertso Eskolaren eskutik

Bortzirietako Bertso Eskolak antolatuta, Karlos Aizpuruak *Nola landu etxean, bertso gintzako ohiko baliabideak* solasaldia eskainiko du urriaren 21 ean, ortziralean 17:30ean Harriondoan. Biharamunean, *Hor Konpon Marianton!* haur ikuskizuna antolatu du, larunbatean 18:00etan Harriondoako Txokobiko aretoan.

**IRU BIDE**  
Erretegia · Asador

Burrana, 3 · Lesaka  
Tel: 948 637 127

**ZUBIONDO**  
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika  
BERA NAFARROA

Tel: 948 625 474

ONGI PASA BESTAK!

**Bidasoa**  
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA  
24 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

Lentzeria  
Bainujantziak  
Mertzeria  
Jantzi tipikoak  
Peñen blusak

**kattagorria**  
lentzeria mertzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka  
T. 948 627 514

**LABE ZAR**

Tel: 948 631 076 · BERA





ARGAZKIAK: ANA INDABURU

## CNN telebista katea herrian grabatzen

Urriaren 1ean CNN bidez mundu osoan eta hemen *Viajar* katean ikusi daitekeen Euskal Herriko gastronomia eta kulturari buruzko saiorako grabaketa egitera etorri ziren. Etxalarko dantzariak, trikitilariak, Berako dantzariak eta txalapartariak ere izan ziren grabaketan. Laster sarean ikusgai izanen da.

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 16AN

# Usategietako besta ospatuko da igandean

Bezperarako ere hainbat ekitaldi antolatu ditu Euskara batzordeak

**Iruñe ELIZAGOIEN**

Urriaren 15ean, larunbat arratsaldeko 6:30ean antzerkia izanen da Kultur Etxean: *Zein ongi bizi zen Ullises*. Ondotik, 20:00etan Unama taldea arituko da plazan. Urtero bezala urriaren hirugarren igandearekin, Usategietako Igandea ospatuko da. Eguraldi ona bada goizean talo postua jarriko du Altxatak Lizaieran eta arratsaldean ere ostatua martxan izanen da frontoian dantzarien alde dirua biltzeko. Igan-

de arratsaldeko 6:30etik aitzinera Oharkabe taldeak joko du plazan.

## USATEGIETAKO DENBORALDIAREN HASIERA

Urriaren 1ean, hasi zen Usategietako sare bidezko uso harrapaketan sasoia. 600 urte baino gehiago dituen tradizio hau ezagutzeko bisita gidatuak ere martxan jarri dira, hamalau garren urtez. Urtero bezala, urriaren 1a eta azaroaren 20a bitarteko larunbat, igande eta besta egunetan egiten dituzte ordubeteko bisitak, 11:00etan hasita. Prezioa berriz, 5 eurokoa da pertsonako eta 10 pertsona baino gehiagoko taldeentzat eta haurrentzat (6-12 urte),



ARGAZKIAK: IRUNE ELIZAGOIEN

## Usategietako tradizioaren besta Lizarietan irailaren 25ean

Duela bortsu urte sinatutako ehizari buruzko hitzarmena berretsi zuten Migel Mari Irigoien eta Battite Laborde Etxalar eta Sarako alkateek irailaren 25ean. Goizean artisauen postuak, paleta egite erakustaldi parte-hartzailea, haurrentzako puzgarriak, taloak eta erakusgai egondako motozerra eta bertze tresnen erakustaldia izan zen. Sarako Ondareak prestatutako *Usoak Sarean* erakusketan ere ikusgai izan zen bertze urte batez. Aspaldian jokatzeko *Botaluze* pilota partida ere jokatu zuten Etxalar eta Sarako taldeen artean. Makila edo *karote* botatzeko Munduko hirugarren txapelketan taldeka saratarrek irabazi zuten eta bakarka ere Daniel Calvet saratarra izan zen makila urrutien bota zueña, Jabier Galarregi etxalartarraren aitzinetik. 300 bat lagun bildu zituen aretxe-jatea izan zen Lizarietako zelaian, Fernando Otano eta Beñat Mitxelena musikariek alaitua. Herri kirol saioa ere izan zen.



ARGAZKIAK: MARI LUZ ARIZTEGI

## Larraburua Jubilatuen elkarteak 25. urteurreneko irteera

Urriaren 1ean Xaretara bidaiara egin zuten Larraburukoek. Kuadrila ederra bildu zen eta ekitaldi guztiak betez egun polita pasa zuten.

4 euro pertsonako. Bisitaz gain, ikusentzune-ko bat ikusteko eta sareetako behatokia sar-tzeko aukera ere bada.

### Ba al zenekien

Zegamako Ehizaren Azokan izan zirela herriko usazaleak. Lehen aldian zuten azoka batera joaten eta baikor baloratu dute esperientzia.



**Alberto RETEGI**  
abokatua  
abokatua  
© 948 630 763 · Altxate, 17 · BERA

**KSAT**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA · T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimatxako@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio individualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta

## ARANTZA

KIROLA → MENDIA

# Hilabetean behin mendi ateraldiak antolatuko ditu Ekaitza Elkarteak

Hilabeteko lehenbiziko larunbatetan egingen dituzte

## Nerea ALTZURI

Mendian ibiltzea maite dutenek aukera ederra izanen dute hemen dik aitzinera taldean zaletasun horretaz gozatzeko. Izan ere, Ekaitza Elkarteak hilabetean behin mendi ateraldiak antolatzea erabaki du. Lehenbizikoa joan den urriaren 8an egitekoa zuten, Baigura mendira.

Irteerak hilabeteko lehenbiziko larunbatetan egingen dituzte. Hasiera batean, Euskal Herriko tontorretara joateko asmoa dute, eta biltzen diren mendizaleen artean erabakiko dute hurrengo ateraldiak nora egin.

## Haur eta helduentzako ikastaroak

Ikastaro batzuk heritik kanpo... baina ber-

tze mordoxka bat herriarri bertan. Herri guzietan bezala, herritarrak, ikastaroetan hasi dira. Haur eta gaztetxoek eskolaz kanpoko jardueretan, karatea, pandereta, trikitixa eta pilota izanen dituzte.

Iker Ordoki lesakarrak karatea ematen die, astearte eta ortzegunetan 19:00etatik 20:00-

etara. Pandereta eta trikitixa ortzegun eta ortzirale arratsaldeetan dute, Estitxu eta Jone Elgorriaga eta Maiderrekin. Pilota ikastaroaren egunaren berririk ez dugu jaso lerro hauek idazterakoan.

Helduei zuzenduriko ikastaroetan, *cardiofit* ikastaroa asteazkenetan 17:30etik 19:00eta-

ra izaten da Ana Larretxea aranztarraren eskutik. Ortzirale arratsaldeetan, aurten ere, yoga ikastaroarekin segitzen dute, 17:00etatik 19:00etara.

## Udaletik berriak

Zenbait mendiko lan egiteko diru-laguntza emana dio Nafarroako Gobernuak Udalarari. La-

nak hauek dira: Iturpo, Buruitza-Itsaszelaieta, Zerradoko Borda-Amexkoko, Tuanekoborda-Amekurrun, Senberroko Borda-Ildoia, Ekaitza, Soraeta-Negusoro eta Muniltzako pistak. Zenbait enpresari gonbidapena bidali ondok, Udalak Mikel Ubiria S.L enpresari esleitu zizkion lanak, 49.909,34 eurotan, BEZ barne, beti ere aurkeztutako bere proposamena, Basarrea S.L. enpresari egingadako proiektuaren arabera, hoberena zelako. Bidalitako gonbidapean aurrekontua 52.447,88 eurokoa zen, BEZ barne.

Orbrak hilabete honen erdialderako eginak egon beharko dute.

## EGUR LOTEAK

### ESKATZEKO EPEA IREKIA

Urtero bezala, su egurra eskatzeko epea zabaldu du Udalak. Etxe bakoitzak lote bat eskatzen ahal du eta prezioa 30 eurokoa da. Urriruaren 31 arte eska daiteke.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

## Baserritarren Eguna prestatzen

Aurten ere urri hondarra eta azaro hasiera ekitaldiz hornituak izanen ditugu, orduan izanen direlako Kultur Egunak. Horretan ari da Euskara Batzordea. Ekaitza Elkarteak, berriz, hasia da azaroaren 1ean egingen den Baserritarren Eguna prestatzen. Hurrengo alean xehetasun gehiago emanen dizkizuegu.

**aterpe**  
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179  
ARANTZA  
[www.arantza.net](http://www.arantza.net)

“TELLETXEA”  
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa  
LESAKA • T. 619 418 683 • [johnletetxea@hotmail.com](mailto:johnletetxea@hotmail.com)  
[www.telletxealozaintza.com](http://www.telletxealozaintza.com)

xuga

tel. 948 631 519  
[www.xugabera.com](http://www.xugabera.com)  
[www.facebook.com/xugabera](http://www.facebook.com/xugabera)

okaNe

HARATEGIA / URDAITEGIA  
Enaut & Nekane  
Kanttonberri 12 • BERA

Tfno/Fax: 948 630 018



OSPAKIZUNAK → BIKAINAK IZAN DIRA

## Giro ederrean joan dira aurten ere San Migel bestak

Aizarnazabalgo Manuel Gorritik eta Argik irabazi zute 36. Artzain Zakur lehiaketa

### TTIPI-TTAPA

Bikain joan dira aurten San Migel bestak, eguraldi bikaina lagun. Aitzineko asteburuan, ohi bezala, hainbat ekitaldi egin ziren.

36. Artzain Zakur lehiaketara sei artzain aurkeztu ziren beraien zakurrekin eta Aizarnazabalgo Manuel Gorriti eta Argi bere zakurra suertatu ziren garaile. Bigarren postua, iazko irabazleek, Zumaian bizidena Mikel Garaiaiar oartzuarrak eta Lucky zakurrak lortu zuten eta hirugarrena Itsasuko Jean Paul Irikin eta Listo zakurrak.

XI. Gazta lehiaketa hamar gazta aurkeztu

ziren eta horien artean, Antsoberriko Enkarnita Etxeberria atera zen garaile, Argarategarako Elena Retegik lortu zuen bigarren saria eta Argarateko Maixe Lizardik hirugarren saria.

Ziobin egindako plater tiroketan hamar partehartzailereren artean, Xabat Matxikotek irabazi zuen. Patata tortilla lehiaketara, berriz, lau tortilla egile aurkeztu ziren eta Angel, Luken eta Danel Urtxegi aita-semeak suertatu ziren txapelak.

San Migel eguna udabeteko eguraldiarekin joan zen eta dantzariak bere ohiko saioak eskaini zituzten, udal korporazio berria lagun zutela. Aparteko aipamena merezi du larunbaterako herri kirol saioak. Txapelketa ofizialaz gain, jaialdi ikusgarria eskaini zuten gazteek.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Besten aitzineko asteburuan, artzain zakur eta gazta lehiaketetako sari banaketa eta dantzari ttikien emanaldia.



ARGAZKIAK: A. AROTZENA

Herri kirol proba konbinatu berezia antolatu zuten bertze behin gazteek, garai bateko jokoak eta langintzak erabiliz: sagar biltzea kizkiarekin, sagar garraioa zarean, gurpila eramatea, soka-saltoa, motozerrarekin aulkia egitea, sagar zuritzea... Eta borobiltzeko, ardi zakur lehiaketa, egiazko ardiekin, baina zakurra, mozorrotuta eta begiak estalitako gazte bat zela.



Urriak 15  
**DASTAKETA**  
10:00-12:00  
Kooperatiban  
(Irun)

**SALMENTA**  
Nekazarien Etxea - Urdanibia Plaza, 7 - IRUN  
Cooperativa del campo - Olaberria auzoa - IRUN  
(Trinkete Borda jatetxetik kilometro batera)

## PIPER ERREEN SALMENTA

### LARRAGAKO PIPERRAK

(Irunen erretzen ditugu)

- Momentuan erretzen ditugu
- Kontserban nola ipini erakutsiko dizugu
- Nahi izanez gero guk egindakoak eros ditzakezu
- Barietateak: pikillo, Najerano, kristal, piko-Medavia

Zure eskaera etxera eramango dizugu

Astelehenetik ortziralera: 08:30-13:00 eta 16:00-19:30  
Larunbata: 08:30-14:00

Tel. 645 636 614  
948 040 094  
648 260 137



# SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → DANTZAZ ETA MUSIKAZ BLAI

## Egun berezia eta dotorea izan zen urriaren 1a

Malerreka kantuz, Mendaurko trikitilari eta panderojoleen kalejira eta herriko dantzarien jaialdi bikaina

### Maider PETRIRENA

Urriaren 1eko eguna, egun berezia izan da herrian. Eguerdi partean herrian barna kantuan ibili ziren hainbat lagun. Euri pixka bat egin bazuen ere, giro onean pasatzeko aukera izan zen. Ulibeltzak elkartean bukatu zuten kalejira, luntx eder batekin. Malerreka-kako Mankomunitateko Euskara Zerbitzua, gure herrira bertaratu ziren abeslari eta musikariak, Sunbillako Udala eta nola ez luntxa prestatu zutenak eskertzekoak dira.

Arratsaldean, Herriko Etxetik hasita Mendaur trikitixa-pandero eskolaren emanaldi ederra aditzeko aukera izan zen herrian barna. Kuadrilla eder bat elkartu ziren eta Bustitz Ostatuan akitu zuten, berendu eder batekin. Oraingoan ere eskertzeko tartea eskainiko dugu: eskerrik asko bertaratu zireneten soinulari eta guraso guztiei, Udalari, Arkaitz, Oihana eta Aina-ira irakasleei eta nola ez gure musikari guztiei.

Egun borobilarekin akitzeko, VIII. urtez Dan -

tza Jaialdia ospatu zen. Jaialdi ederra, koloretua, alaitsu.

3 urtetik 40 urte inguruko 60 bat dantzari elkartu ziren herriko frontoian ordu bateko emanaldi ederra eta polita eskaintzeko. Ttiki-ttikienak izan ziren jaialdiari hasiera eman ziotenak *Neskatxak* eta *Txalo polka* dantzak dantzatzu. Ondotik helduen txanda etorri zen *Minue-Bo-lera* eta *Tudelako Jota* rekin. Jarraian haur koxkorak *Borobila* eta *Orpo-punta* dantzak eskaini zituzten. Gero, *Axuri Beltza* neska kuadrilla batek dantzatu zuten eta segidan *Marcilla* dantza izan zen zortzi mutilez osatutakoa. Jaialdiaren azken zatian sartuz, koxkorak *Ciego*, *Iribaseko Ingurutxo* eta *Bailaos* dantzak egin zituzten eta helduek, berriz, *Bercijana* eta *Betteluren fandangoa*. Bukaera ezin hobea izateko dantzari guztiak *Txapelo* eta *Biribilketa* dantzatu zuten. Zorionak dantzari, mu-



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA ETA ESTHER EZKURRA

Malerreka Kantuz, Mendaurko trikitixa eta panderojoleen kalejira eta dantza jaialdia, urriaren estreineko egun borobila osatzeko.

sikari eta irakasleei eta eskerrik asko bertaratu zirenet guztioi.

### MENDI BIZIKLETA

## Koldo Herrera txirrindulari gazteak garaipen handia lortu du Acedon

### M. PETRIRENA

Caja Ruralek urtero antolatzen duen BTT martxak irailaren 18an akitu eta Diario de Navarrak antolatzen dituen Openetan parte hartzen hasi da Koldo Herrera. Guztira 9 karrera eginen di-

tu 9 asteburu jarraietan. Irailaren 24an hasi zen Acedon eta ez nolnahi hasi gainera, garaipena lortu baitzuen. Urriaren 2an, berriz, Lodosan parte hartu zuen eta hemen laugarren postua lortu zuen.





GIZARTEA → IRAILAREN 18AN DONEZTEBEN

## Garraio-sistema publikoa berritzeko lehen parte-hartze bilera egin dute

Urriaren 15era arte bidal daitezke planari egin nahi zaizkion iradokizunak edo ekarpenak

### TTIPI-TTAPA

Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi eta Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietan herri arteko garraio-sistema publikoa berritzeko Nafarroako Gobernuak egingadako proposamena aurkezteko lehenengo bilera parte-hartzailea irailaren 18an egin dute Donezteben. Nafarroako Gobernuak Garraio Departamentuak Cederna Garalur Elkartearen lankidetzarekin antolatutako jardunaldian

15 lagunek hartu zuten parte; udaletako ordezkariak, Berako Toki Ona BHlko guraso-elkarteak, eta Malerreka-ko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak.

Nafarroako Gobernuak eskualdeko zerbitzuak berritzeko plana aurkeztu zuen, eta ondoren talde-dinamika antolatu, eta parte-hartzaileen ekarpenak azaldu ziren.

Baztan-Bidasoaldeko herri arteko garraio publikoa berritzeko planak «eskaeraren arabeko» 9 taxi-linea ditu, urrunen dauden herriak eskualde buruekin lotzeko; hau da, Elizondorekin eta Donezteberekin. Horrez gain, Iruñerako, Donostiarako eta Iruñerako zerbitzuekin konbinatzea ahalbidetu nahi da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Donezteben bildu ziren eskualdeko hainbat eragile, garraio plana aztertzeko.

Zerbitzu horrez gain, Iruñea-Oronoz-Donostia, Elizondo-Oronoz, Elizondo-Irun-Donostia, eta Elizondo-Iruñea arteko lau linea erregularrei eutsiko zaie, ordutegiak aldatuta, eta Irun, Donostia eta Iruñerakiko maiztasunak doitu, eta lineen bikoizketa kenduta.

Interesa duten pertsonen proposamenak jaitsi ditzakete Nafarroako Gobernuak Gardentasun Ataritik eta Cederna Garalur Elkartearen web-orritik: [www.cederna.eu](http://www.cederna.eu). Hala, iradokizun eta ekarpen berriak bidal daitezke urriaren 15era arte [transgar@navarra.es](mailto:transgar@navarra.es) helbidera, edo telefo-

DATUA

# 9

TAXI-LINEA

«Eskaeraren arabeko» 9 taxi-linea proposatzen ditu Baztan-Bidasoaldeko herri arteko garraio publiko berritzeko planak, urrunen dauden herriak eskualdeko buruekin, hau da, Elizondorekin eta Donezteberekin lotzeko.

samea prestatuko da, eta hori bigarren saio parte-hartzailean aurkeztuko da, urriaren amaiera aldera.

Irailaren 18an aurkeztutako proposamena aurtengo ekainean egin zen lehenengo aurkezte-bileraren ondoren eskualdeko toki-erakundeetatik jasotako ekarpenekin idatzi da. Egitasmoak bertako herritarrekin kontrastatuta, Nafarroako Gobernuak aurreproiektu jandurrean jarriko du abenduaren amaiera aldera. Kontzesioaren lizitazioa, berriz, 2017ko martxoan egingen da, eta zerbitzuak 2017ko erdialdera jarriko dira martxan.

noz 848 427 545 zenbakira deituta.

Jasotako ekarpenekin, behin betiko propo-



## armadenda

# andueza

Paotxa Eraikina • Gorostiaga, z/g • Anaka industrialdea  
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN  
[c.andueza@euskalnet.net](mailto:c.andueza@euskalnet.net)

# DONEZTEBE

GIZARTEA → URRIAREN 15EAN BISITA DIDAKTIKOA ETA BERE LIBURUAREN AURKEZPENA EGINEN DU

## Jakoba Errekondok bultzada emanen die herri baratzeei

Hitzordua larunbatean goizeko 11etan

### Marga ERDOZAIN

Dagoeneko 20 herri baratze martxan jarri dira eta erabiltzaileek dituzten zalantzak, galderak eta ekarpenak erantzutera etorriko da Jakoba Errekondo urriaren 15ean, larunbat goizeko 11etan. Aditu honek gure proiektua hurbiletik ezagutzeko aukera izanen du eta ondoren, Herriko Ostatuan *Bizi baratzea* liburuaren aurkezpena egingen du. Aurkezpen horren ondoren galderak argitzeko saioa luzatuko du Errekondok ez baratzeak soilik, baita landareen arlo guztietakoak ere: baratzea, lorategia, fruitu arbolak, etxe barrukoak, basoak... Jakobaren bisita hau urriko agenda ekimenaren barnean sartu du Udalak eta herri baratze proiektuaren inguruko kanpaina barnean sartzen da. Gogoratu behar da herri baratzea eskatzeko aukera oraindik badela. Mourges etorbideko lurzoruan Udalak txukundutako eta presatutako baratzeek dagoeneko Doneztebeko paisaia aldatu dute. Lehendabiziko fase hau burututa Udalak urrats gehiago aurrekusten ditu: konpostajerako gunea, tresnak gordetzeko gunea, ureztatzeko gailuak, mugak apaintzeko proiektua... Legealdi honetan Udalak aurrekontuaren barre-

nean ekimen honi dagozkion hobekuntzak ezarritako konpromisoa hartu du.


### Udazken literarioak agenda barnean

Aurtengo udazkenean literaturaz gozatzeko aukera izanen da, Udalak *Udazken literarioak* zikloa antolatu baitu. Urriaren 21ean ha-

sita, ortziraletan, bertako eta Malerrekako hainbat idazleen lana ezagutu eta dastatzeko aukera izanen da. Luis



www.mueblestelletxea.com



MUEBLES  
**TELLETXEA**  
ALTZARIARIK  
Rosa Seminario, 12  
31740 DONEZTEBE  
Tel. 948 450 258  
948 451 811



ARGAZKIAK: ERREKA K.E.

### Errekako txirrindulari taldea denboraldi bukaera eta triatloi taldea Argedasen

Errekako txirrindulari taldeak denboraldiko azken irteera egin zuen irailaren 25ean Izpegira eta kaxkoan ederki bazkaldu zuten. Triatloi taldeak, berriz, Valtierako Duatloian parte hartu zuen irailaren 24an. Xanti San Miguel bosgarren izan zen eta berekin batera Txibi Uterga, Migui Ezkurra, Iñigo Arregi, Jon Maritxalar eta Endika Eugi izan ziren.

Garde, Tiburtzio Arraztoa, Alicia Del Castillo, Elixabet Badiola, Izaskun Zubialde eta Dani Martirena idazleek jantziko dute aurtengo zikloa. Urriaren 21ean, 19:30ean Herriko Ostatuan zikloaren aurkezpena burutuko da eta aipatutako idazle, egileek lanak ukitu, usaindu eta erosteko aukera izanen da. Ondoren, urriaren 28an hasita, sei ortziralez egingen da, abenduaren hasiera bitarte.

### Mankomunitateko Kontsumitzailearen bulegoaren ordutegia

Malerrekako Mankomunitateko zerbitzuen artean ohikoa den Kontsumitzailearen Bulegoaren arreta zerbitzuak udazkenearako honako egutegi hau aurre-

### FLASH

#### Errekako emakume korrikalariak

Ikasturte honetan ere korrika egin nahi duten emakume korrikalariak zapatilak jantzita asteroko hitzordua izaten segituko dute. Ortzegunero, 20:00etatik 21:00etara kilometroak egiten ikusiko ditugu karrika eta parkeetan. Irailaren 29an denboraldiko aurkezpena egin bazen ere, apuntatzeko aukera oraindik bada. Interesatuak *japezetxea@hotmail.com* helbidera idatzi edo Jokin Apezetxeari aipatzen ahal diote.

#### Harkaitz Cano literatur solasaldian

Azaroaren bigarren hamabostaldian edo abenduaren hasieran literatur solasaldia Harkaitz Canorekin antolatu du Euskara Zerbitzuak. Ekimen honetan parte hartu nahi duenak euskara teknikariarekin harremanetan jarri beharko du.

kusten du: urriaren 21a, azaroaren 4a eta 18a eta abenduaren 9a eta 23an. Nafarroako kontsumitzaileen Elkarteak, Iratxek zabalduko die bere bulegoa herritarrei, doaneko bitartekaritza eta laguntza juridikoa eskaintzeko. Etxe-bizitza, aseguruak, banku eta aurrezki kutxa, etxeko zerbitzuak, tailerrak eta zerbitzu teknikoak, merkataritza, administrazioa eta kontsumoari buruzko kezka eta galderak luzatzen ahal dira. Erabiltzaileek 948 451746 telefonora deitu behar dute ordua eskatzeko.



OSPAKIZUNAK → URRIAREN 2AN

## Onddo eta zizaren kofrade berriak izendatu dituzte

Onddoaren Enbaxadorea ere aukeratu zuten

### TTIPI-TTAPA

Akitaniako Urrezko Marmita Kofradiako kide den Daniel Vinizpert, Tenerife eta Errioxako Ardoaren Kofradietako kide den Antonio Javier Acevedo, TVE Telebistako *Aquí la tierra* saioarengatik ezagun den Mar Villalobos kazetaria eta Lourdes Goikoetxea Nafarroako Gobernuko kontseilari ohia dira Nafarroako Onddo

eta Zizen Kofradiako Ohorezko kide berriak. Horretaz gain, Errioxako Ardoaren Kofradiako Maisu Handia den Javier Gracia Leria Onddoaren Enbaxadore ere izendatu zuten urriaren 2an Elgorriagan Kofradiak egin zuen hogeita hirugarren besta egunean.

Kofradiako zapela, domina eta kapa marroia Jose Miguel Galarregi presidentearen eskutik jaso eta jantzi ondotik, Santa Maria la Real Abesbatzaren kantuar aditu zituzten. Ospakizunean, Onddo eta Zizen Kofradiako kideez



gain, Nafarroako Zainzuriaren Kofradiakoak, Kaskanteko Ardoaren Kofradiakoak, Nafarroako Olioarenak, Volatineren Ordenarenak, Bidasoko Izokinarenak, Sarako Usoarenak, Beasaingo Odolkienak, Ziburuko Ttoroarenak, Donostiako Euskal Gastronomiarenak, Errioxako Ardoarenak eta Irungo Anakakoak ere izan ziren, bertzeak bertze.

Meza aitzinetik, Elgorriagako balneariotik elizara joan ziren, Zubietako joaldunekin batera. Ondotik, berriz,



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

Kofradeak elizan eta onddo kaxuela lehiaketan.

Juanito Mariezkurrenaren omenez onddo kaxula lehiaketa egin zen eta bertan, Bidasoko Izokinaren kofradia

suertatu zen garaile, Donostiako Euskal Gastronomiaren kofradiaren eta Beasaingo Odolkienaren aitzinetik.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Edredoi nordikoetan espezialistak**

edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634



## ITUREN

GIZARTEA → HAMALAU ASTEKO EPEA IZANEN DA LANAK AKITZEKO

# Ur biltegi berria eta bidea egiteko lanak eman ditu Udalak

Goizuetako Apezetxea Anaiak enpresak eginen du

## Arkaitz MINDEGIA

Ur-biltegi erregulartzailerria eta haren bidea egiteko obren adjudikazioa onartu zuen urriaren 3an Udalak. Goizuetako Apezetxea Anaiak S.I enpresak hartu du lanen ardura 241.261 eurotan + BE-Za. Lanak akitzeko 14 aste epea izanen dute, hasteko akta jasotzen dutenetik.

## Malerreka kantuz

Malerrekako Mankomunitateko Euskara batzordeak antolatuta Malerreka kantuz izanen da datorren azaroaren 5ean Iturenen. Beraz denak gonbidatuak zaudete egun horretan karrikara kantatzera.



ARGAZKIAK: MARIA LARRETXEAA

## Joaldunen Eguna giro ederrean

Irailaren 24an ederki pasa zuten herritarren Joaldunen egunean. Goizean Amezti auzora bisita egin zieten urteroko legez joaldun, trikilar eta bertsolariek. Eta eguerdian aizkora apostuaren ondotik bazkari ederraren bueltan pasa zuten eguna Julio Soto eta Aitor Mendiluze bertsolari eta Hauspolari taldearekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Eskolako irteera

Pulnupa eskolakoak eta Narbarteko ikasle eta irakasleak Zubietara txangoa egin zuten irailaren 29an. Goizeko 9etan Iturendik, uraren bidean barna oinez joan ziren 3 urtekoak ezik eta Zubietan taldeka banatu eta errota bisitatu, plazan taloak egin eta dastatu eta asto gainean ibiltzeko parada izan zute. Egun ederra pasa zuten denek ere.

## BAZTAN-BIDASOA

Hondakin bilketa zerbitzuen egutegiaren laugarren hiruhilabeteko zozketa egin da

## TTIPI-TTAPA

Aurten, urtero bezala, Baztango Udalak eta Bortzirriak eta Malerreka Mankomunitateek zonaldeko etxe guztietan banatu den egutegia prestatu dute. Ale bakoitzak zenbaki bat du urtean zehar egiten diren zozketetan parte hartzeko. 2016ko laugarren eta azken zenbaki sariduna atera da eta 9.118 zenbakia izan da. Saria eskualdeko dendetan gastatzeko 300 euroko erosketa txartela izanen da.

Hirugarren hiruhilabeteko saria ez zen banatu eta oraingoan zorte hobea izatea espero dute. Saridunak Bortzirrietako Mankomunitatera deitu beharko du abenduaren 31 baino lehen (948 63 52 54).



UTZITAKO ARGAZKIA

## Kepa Junkera eta joaldunak

Urriaren 1ean Zugarramardiko lezeetan Kepa Junkeraren Maletak diskaren aurkezpenean Iturengo Joaldunak parte hartzeko aukera izan zuten eta ikuskizun bikaina eskaini ere.



KIROLAK → URRIAREN 2AN ETXARRI-ARANATZEN

## Nafarroako bigarren mailakoa irabazi du Mieltxo Mindegia

Heldu den urtean lehen mailan lehiatuko da

### Fermin ETXEKOLONEA

Nafarroako bigarren mailako aizkora txapelketa jokatu zen urriaren 2an Etxarri Aranatzen eta bertan Mieltxo Mindegia zubietarra suertatu zen txapeldun. Zigako Josean Etxeberria bigarren izan zen, eta hortaz, biak lehen mailan ariko dira heldu den urtean.

Mieltxo Mindegia, aita erakusle zuela, jaun eta jabe izan zen hasieratik eta aldea handitzen joan zen pixkanaka-pixkanaka. Azkenean, 15 minutu eta 40 segundo behar izan zituen bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat



ARGAZKIA: NEREA MAZKIARAN

Mieltxo Mindegia lanean Etxarri-Aranatzen, aita erakusle duela.

mozteko. Honela, txapela eta maila igoera lortu zituen. Bigarren posturako lehia gogorra izan zuten Zigako Josean

Etxeberriak eta Arostegiko Oier Kañamaresek. Azkenean, baztandarra gailendu zen (17:08). Kañamaresek 7 segun-

do gehiago behar izan zituen (17:15). Iban Resano laugarren eta Eneko Saralegi bosgarren izan ziren.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

### Joaldunak Elgorriagan eta Armentian

Elgorriagako Onddo eta Zizen Kofradiaren egunean parte hartu zuten herriko joaldunek urriaren 2an eta urteko ateraldiekin segitzen dute. EAJ-PNVren AIterdi Egunean ere parte hartu zuten Araban, Armentian.

### LANGABEZIA

11 langabetu guttiago zeuden eskualdean irail hondarrean

### TTIPI-TTAPA

894 lagunek emana zuten izena Doneztebeko Enplegu Bulegoan irail hondarrean, abuztuan baino 11 guttiagok (-%0,47). Nafarroan, aldiz, 383 langabetu gehiago daude (%0,98 gehiago).

### EMAKUME GUTTIAGO LANIK GABE

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean 367 lagun daude langabezian, abuztuan baino 9 gehiago. Adin tarte horretako emakumeen artean, aldiz, 21 guttiago daude langabezian, 448. 25 urtez beheitiko gizasemeen artean abuztuan baino 7 gehiago daude langabezian, 42 lagun denera. Adin tarte horretako emakume gazteen artean abuztuan baino 6 langabetu guttiago daude, 37 denera.

### ERAIKUNTZAN GOITI

Arloka, zerbitzuen arloak segitzen du langabe gehien izaten, baina abuztuan baino 7 guttiago ditu, 633tik 626ra pasatuz. Industria arloan ere 10 langabetu guttiago daude, 130 denera. Eraikuntzan, aldiz, 6 langabetu gehiago daude, 68. Nekazaritzan, berdin mantentzen da langabetu kopurua 24 denera, eta aitzinetik lanik egin ez dutenen artean ere, 46 lagun daude langabezian, abuztuan bezalaxe.

### FLASH

#### Errotako kontuak

Urriaren 1 eta 2an 2016ko Europako Ondarearen Jardunaldien baitan zenbait ekitaldi izan ziren herriz herri. Errotak bat egin zuen eta sarrera doan izan zen bi egun horietan. Aipatzekoa da Maixux Petrikoren akitu duela bere kontratua eta orain Edorta Murua izanen da errotazaina.

#### Zumba ikastaroa

Astelehen ilunabarretan helduendako zumba ikastaroa ematen du Jaionek eskolan eta asteazken ilunabarretan gaztetxoendako.

## GIZARTEA

EUSKARA → URRIAREN 8AN

# Ikasturte honetan ere martxan jarriko da Solaslaguna egitasmoa

Talde ttiketean elkartzen dira euskarazko mintzamina hobetu nahi dutenak txukun hitz egiten dutenekin

## TTIPI-TTAPA

Ikasturte honetan ere martxan jarriko da Solaslaguna egitasmoa, euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi duten pertsonak biltezeko doako programa.

Malerrekako, Bortzrietako eta Baztango Solaslaguna 2007an sortu zen. Solaslaguna programan euskarazko mintzamina hobetu nahi duten hiztunak (bide-lariak), txukun hitz egiten dutenekin (bidelagunak) elkartzen dira talde txikietan, normalean launaka edo bosnaka, astean behin eta gutxienez ordu betez.

Solaslaguna bezalako programetan parte hartzen dutenak euskarra maila hobetzeaz gain, gehiagotan erabiltzen dute eta ongi pasatzen dute, saioetan arras gustura egoten direla aipatzen dute. Jarraia osagarriak ere egiten dituzte, hala nola eskualdeko bertze solaslagun taldeekin irteerak, afariak, kirol ekintzak, Mintza Eguna...

2015-16 ikasturtean, Baztan, Bortziriak eta Malerrekako 100 solaslagunek eman zuten ize-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ikasturtean zehar hainbat ateraldi egiten dituzte Solaslagunek.

na eta 21 talde osatu ziren. Datu horiek mantentzea da helburua.

## SOLASLAGUNAREN ALDAERAK

Guraso taldeen mintzapraktika saioak, Hitanolaguna (hiketari solaslagunak) edo Euskalkide (Berako eta Elizondoko zahar etxeetan bizi diren adinekoak eta interesatuak elkarrekin solasean jarri ditu, tokian tokiko solasmolde jatorrak ikasteko eta horretan aritzeko espazioak sortuz) ere bultzatzen dira Solaslagunaren bitartez. Solaspoteoa antolatze-ko ohiturarekin ere jarraitzen dute. 2009an lehenbiziko urtean Elizondon egiten zuten lehenbiziko urtez, bailaraz bailara txandakatu doaz urtetik urtera, eta aurtan Malerrekako hartuko du lekukoa. «Lehenbiziko saioa izateko interesgarria ikusten dugu,

DATUA

21

TALDE

osatu ziren iaz inguruan,  
100 solaslagun baino  
gehiago.

musika, janaria, edaria eta giro on eta alaiaren harremanetan hasteko, hau ere Euskal Herriko kultura baita. Horrela ere, jendea, inguru erraz batean ireki eta eza-gutzeko aukera izanen du», diote Solaslagunatik.

Urtean lauzpabortz saio osagarri ere egiten dituzte, eskualde osoan parte hartzen duten solaslagunendako eta herritarrendako irekiak daude. Mintzapraktiketan parte hartzen duen jendea euskaraz eza-gutzeko aukera ematen du. Parte hartzeko baldintza bakarra, euskaraz egitea da. Sagardo-

tegia, mendia eta Mintza Eguna (iaz Atarrabian egin zen eta aurtan Bizkaiko Txorierrin egiten da) izaten dira irteera arrakastatsuenak.

Aitzineko urteetan bezala, Solaslagunaren aurkezpen luntxak egiten dira Lesakan, Donezteben eta Elizondon. Urri erdialdera izanen dira; datak zehazteke daude, baina hauek lotzerakoan, abisuak pasako dira, solaslagunei, eskoletako gurasoei, komunikabideei...

Nahi denean apunta daiteke, eperik gabe. Informazio gehiago Solaslagunaren Txokoan ([solaslaguna@topagunea.org](mailto:solaslaguna@topagunea.org), 610 920673 telefonoan), Bortziriak, Malerrekako eta Baztango euskaltegietan, baita Bortzrietako Euskarra Mankomunitatean eta Malerrekako Mankomunitateko eta Baztango Udaleko Euskara Zerbitzuetan ere.

## SEI URTE ETA GERO

Euskal kantu txapelketa prest dute berriz ere Nafarroan

## TTIPI-TTAPA

Sei urte baino gehiago igaro dira Nafarroako Euskal Kantu Txapelketaren azken edizioa egin zenetik. «Haren falta baitugu hartan parte hartzen genuenok», Nafarroako Kantuzale Elkartearen eskutik, 2016ko Nafarroako Euskal Kantu Txapelketa antolatzeari ekin diote. Urriaren 26ra arte zabalik dago izen emateko epea.

Txapelketa irekia da; abestiek euskaraz behar dute, horixe baldintza bakarra. 16 urtetik gorako edonork har dezake parte, baina binaka edo taldean (zuzendaririk gabe). Euskal kantu zaharrak, gaur egungoak zein norberak sortutakoak abes daitezke, a cappella, musika-tresnez zuzenean lagunduta, edo audioren bat atzeko soinu bezala erabiliz.

Lehenbiziko saioa azaroaren 5ean, larunbat arratsaldeko 6etan izanen da Antsoingo antzokian. Bigarrena, azaroaren 13an, 18:00etan Burlatako Kultur Etxean eta finala azaroaren 27an, 18:00etan Tafallako Kulturgunean.

Izen emateko azken eguna urriaren 26a izanen da, [nafarroakoeuskalkantu@gmail.com](mailto:nafarroakoeuskalkantu@gmail.com) helbide elektronikoan (harremanetarako pertsona, Ainhoa Hualde) eta Facebook-en (*Nafarroako Euskal Kantu*).



KULTURA → URRIAN HAINBAT EKITALDI

## Malerrekako Kultur Ibilbidea abiatu da herriz herri

Urriaren 15ean Urrozko plazan Oliver Magoa eta Eva izanen dira

### TTIPI-TTAPA

Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak eta Doneztebeko, Urrozko, Iturenngo eta Saldiasoko udalek Malerrekako Kultur Ibilbidea antolatu dute. Kultur ibilbide hau antolatzen den laugarren urtea da. 2016ko edizio honetan ere programa erakargarri bat eskaini nahi izan diete Malerrekako eta inguruko biztanleei.

Urriaren 9an, Doneztebeko zineman Bertso marraztuak izan zituzten, bi bertsolari eta marrazkilaria bat elkarri segika.

### HURRENGO EMANALDIAK

**Urriaren 15ean**, larunbat arratsaldeko 5etan Urrozko plazan (euria eginez gero frontoian) Oliver Magoa eta Eva izanen dira eta egunean zehar puzgarriak jarriko dituzte plazan.

*Oliver Magic Show* ikuskizunean, Oliver Magoak eta Evak, ume laguntzaileekin batera, gozaraziko digute magiaz betetako ikuskizun honekin.

Kultur ibilbidearen hirugarren saioa Iturenen egingen da **urriaren 22an**. Egitaraua afarimerendu batekin hasiko da Tresanea ostatuan, 20:30ean. 22:00etan *Minus ukittua* baka-rrizketa Telmo Irureta-ekin eta 23:00etan musika emanaldia Palenka taldearekin.

Telmo Irureta aktore eta zine zuzendari zuma-iarra Gazteluko Ostatuan emanaldi bat eskaini zuen eta berriz ere Malerrekako bere talentuaz gozatzeko aukera izanen da.

Palenka taldea, berriz, Pavel eta Lenka bikoteak osatzen dute, Hendaian bizi dira eta Txekiar eta Eslovakiar errepubliketako musika eta euskal musika lantzen dituzte. Euskara ikasten ari dira.

**Urriaren 29an**, larunbatean 18:00etan Saldiasoko elizan Amaia Zubiria eta Edorta Amurua eta Jean Bordaxar laukotea ariko dira, Malerrekako Kultur Ibilbideko azken emanaldirako sarrera 5 euro gostatoko da.

Amaia Zubiriak ibilbide luzea darama euskal kantagintzan; 1977 urtean Haizea taldean parte hartu zuen, eta ordutik ibilbide luze bezain oparoa izan du. Azken urteetan, bere semea den Edortarekin hain-



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

### Herriko dantzariak aspaldiko partez Urrozko bestetan

Bertze urte batez ere, pasatu dira Urrozko Sanmigelak, eguraldi onarekin eta giro politarekin. Betiko ekitaldiez gain, gauza berri batzuk ere izan ziren, haien artean herriko dantzarien saioa. Udan prestatzen egon eta gero, bandera eta guzi egin zuten dantza; etzen seguraski aspaldian ibilia izanen modu hortan, akaso inoiz... Malerrekako dantzariak ere izan zuten saioa, talde koxkorrak erakustaldi polita egin zuten. Sanmigel egunean, su artifizialak ere izan ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Donamariko Iratxo kobazuloari agurra

Irailaren 24an Donamariko Iratxo ostatuaren azkeneko eguna izan zen. Hiru urte eta erdi eman dituzte lanean, herria alaituz, eta Agur Iratxo besta antolatu zen egun horretan, egitarau oparoarekin: eguerdian triki-aperitifia egin zen herriko trikitilariekin alaitua eta gero, bazkarian 70 pertsona bildu ziren. Bazkailoan, Pitxiroiak kantautorearen emanaldia eta ondotik famili argazkia eta Iratxoko kartel kentzea. Jaialdia akitzeko, "wateke" afaria izan zuten eta gausa DJ.reder-ekin.

bat kantaldi eman ditu, ahotsa eta gitarra soilaren soinua eskainiaz, beti ere intimitasun giro bat bilatzen.

Jean Bordaxar zube-

rotar kantaria, dantzaria, aktorea eta pastoral egilea da. Jean-Pierre Luro, Jean-Noel Pinque eta Robert Larrandaburu kantari zu-

berotarrekin laukotea sortu zuen, Pirinioetako modu tradizionalaren ildoan hiru eta lau bozetan kantatzeko *acappella*.

# ARKUPEAK

PARTE-HARTZEA → URRIRA ARTE

## 1.343 bazkidek parte hartu dute orain arteko irteeran

Hemezortzi bidaia eta zortzi mendi irteera egin dituzte

**Fernando ETXEBERRIA**

Urrira bitartean, parte-hartze handia izan da antolatu diren ekintzetan. Denera, 1.343 bazkide bildu dira egin diren 18 bidaia eta 8 mendi irteeratan. Urtea bukatu aitzinetik, Gorraizen ospatuko den Bazkidearen eguna, Lodosara irteera, Kanariar Uharteetako bidaia eta Zumarragako feriararen joanen dira.

Ekintza hauetan ere jendetza bilduko da: 540 bazkide Gorraizen, 110 Lodosan eta Kanariar Uharteetarako bidaian 80 (Zumarragako feriarako izen-emateko epea oraindik ez da ireki). Aurreikuspenak betetzen badira, 2016 ur-

tean 2.380 bazkidek parte hartu izanen dute egin diren irteeretan. Datorren urtean 21 bidaia antolatzeak dira aurreratuko dizuegu.

### KANARIAR UHARTEETARA BIDAIA

Kanariar Uharteetarako bidaia antolatzeko orduan arazo larriak izan dira. Aurreko urteetan 35 bat bazkide joaten zirela ikusirik, 40 lagunentzako lekua erreserbatua zegoen Playa del Ingles apartahotelean. Irailean jakin zuten antolatzailerek hotel hori itxia zegoela ekainaz geroztik eta trukean 800 bat metrora zegoen hotel batean tokia eskaini zieten. Izen-emateko epea ireki zen orduan eta aurreikuspen guztiak hautsiz, 80 bazkidek eman zuten izena. Gora beherak izan diren arren, azkenean arazoa



UTZITAKO ARGAZKIAK

### 12 mendizale igo ziren Saioa mendiaren kaxkora

Irailearen 20rako zegoen aurreikusia irteera baina, eguraldi txarra tarteko, irailaren 22an igo ziren Saioa mendira. Aldaketa horren ondorioz, mendizale taldetxo txikiagoa izan zen oraingoan. Belateko aterpetxetik abiatu ziren bederatziak aldera eta aldapan gora, Okoliner (1.362m) bidean abiatu ziren, gainera 10:50ean iristeko. Saioa (1.418m) 11:15 aldera ailegatu ziren. Atsedean pika bat hartu eta bista zoragarriez gozatu ondotik, beheirako bidea hartu zuten eta ordubatak baino lehenago ermitara iritsi ziren. Ondoren Almandozko Beola jatetxean ongi irabazitako otordua egin zuten.

konpondu da eta guztiak elkarrekin hondartza ondoan dagoen Beverly hotelera joateko aukera izanen dute. Azaroaren 4tik 13ra bitarte egonen dira bertan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Elkarteko kideek egindako eskulanen erakusketa Leitzan

Irailearen 25ean Arkupeak elkarteko kideek egindako eskulanak jarri zituzten erakusgai Leitzako Talo Egunean. Jesus Azpirozek egurrezko kutxak eta beste zenbait lan aurkeztu zituen, Fermin Azpirozek belar metak, Julian Azpirozek zartaginak eta gaztainak erretzeko danbolinak eta Pili Ezkurdia, Txaro Gordobil, Begoña Olano eta Maritxu Goñik ehoziriak, kortinak, mantelak, pultserak, abanikoak eta eskularru dotoreak.

### GOXALI ETA LEITZAKO LIBURUTEGIAREN ARTEKO ELKARLANA

## Goizuetako liburutegiko erabiltzaileek Leitzako liburuak eskatzeko aukera izanen dute

Goxalik, Leitzako Liburutegiarekin batera, liburutegi zerbitzua martxan jarri zuen duela urte batzuk. Hilabetero, Leitzako liburutegitik liburu batzuk aukeratzeko Goxalin dagoen liburutegia osatzeko. Normalean haur eta gazteentzat izaten dira eta beti euskarazko liburuak.

Zerbitzu hau hobetzeko eta helduei ere aukera emateko, Leitzako katalogoaz baliatzeko proposamena egin dute. Leitzako zerrenda begiratu, liburuak aukeratu eta Goizuetan bertan jaso daiteke. Horretarako liburuak begiratu eta izena eta idazlea apuntatu beharko dira. Eskaerak egiteko 681 265 188 telefonora whatsapp bidali, [tmartinez@lagagizartezerbitzua.org](mailto:tmartinez@lagagizartezerbitzua.org) edo [biblioteca.leitza@cfnavarra.es](mailto:biblioteca.leitza@cfnavarra.es) helbidera idatzi edo 948 510 840 telefonoan mezua utzi liteke. Hilabeteko epean jasoko dute liburuak Goxalin.



GIZARTEA → HURRENGO BILERA URRIAREN 13AN

## Lanean hasia da etxebizitza batzordea

Lan taldea inkesta bat prestatzen ari da herrian dauden beharrak jakiteko eta erantzuna ematen saiatzeko

rritarren parte-hartzearekin.

Herriko biztanleria jaitzieraren arrazoieta-ko bat, etxebizitza falta da. Etxebizitza falta baino gehiago, eskaintzan etxebizitzarik ez ego-tea, edo informaziorik eza, edo prezio garestiak... Egoerari aurre egin nahian, lan talde hau inkesta bat prestatzen ari da, herritarrekin gai hau eta bidenabar, beste gai batzuk lantzeko asmoz, Goizuetako etorkizunari eta beharrei buruz.

Horretarako, etxez- etxe dinamika jarriko dute martxan. Urrian ha-



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

### Astigarragako Kizki Egunean herriko marmitakoa garaile

Herritar kuadrila handia bildu zen irailaren 25ean Astigarragan osapatu zen XVI. Sagar Uzta Egunean. Horren baitan egin ziren ekitaldi ezberdinen artean, Kizki Eguna ere egin zuten zortzigarren aldiz eta 527 kizki-lagun lortzea lortu zuten, une berean kizkiarekin sagarrak jasotzen, orain arte lortutako marka onena. Beste aldetik, herrien arteko Marmitako Lehiaketa ere egin zuten eta beren sukaldaritza dohaiak erakutsi ondotik, Goizuetakoa suertatu zen irabazle.

si eta gehienez, abendura arte luzatuko dena. Herritarrekin egin nahi diren aurrez-aurreko hizketaldi horietan, jendearen prestutasuna eta konfiantza eskatu dute, batez ere, udalarentzat

eta herriarentzat oso baliagarriak izango direlako herritarrek ematen dituzten erantzunak.

Behin galdeketak eginda, ondorioak atera eta herritarren beharrei erantzuna ematen

ahaleginduko da udala. Herritar guztiei abisua helaraziko zaie noiz bildu nahi duen batzordeko kideren batek beraiekin. Etxebizitza Batzordea hilaren 13an biltzekoa da berriz.

### TTIPI-TTAPA

Azken urteetan herrian landu ez den alorra da etxebizitzarena. Horren beharra ikusita, etxebizitza batzordea jarri da martxan, udalak sortua eta hainbat he-



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Uda bukaera emankorra izan da Antton Apezetxea eta Iker Salaberria pilotarientzat

Abuztu hondar eta iraila emankorrak izan dira Antton Apezetxea eta Iker Salaberria herriko pilotarientzat. Anttonek, irailaren 4an Josean Tolosa txapelketa irabazi zuen buruz buru, Iruñeko Matari 181-5 irabazita (1. argazkian, Josean Tolosa eta Altuna III. arekin zapela eta garaikurrarekin; irailaren 24an, Labriten jokaturako Polque torneoaren finalean, Ataungo Zubizarretarekin 20-22 galdu zuen Zugaraldeko Antso eta Eskirozen kontra (4. argazkia). Ikerri dagokionez, abuztuaren 25ean, Zumaiako Dinastia Etxabe txapelketa irabazi zuen, 23 urtez azpiko kategorian, Ataungo Arratibelekin bikote eginez. Finalean 22-15 irabazi zieten Larrañaga eta Otadui (2. argazkia); Berako Iñigo Martinezekin bikote eginez, berriz, Lezamako Andremari txapelketaren finala irabazi zuten irailaren 9an Lezamako Zabalarri eta Tolosako Jon Ander Peñari, 22-15 (3. argazkia). Antiguoko finalean, aldiz, Iruñeko Eskirozekin bikoa osatuz, 15-22 galdu zuen Zubizarreta eta Salaberriren kontra.

## LEITZA

OSPAKIZUNAK → ESKOLAN ASTE OSOAN LANDUKO DUTE GAIA

# Bederatzigarren Mikologiaaldia urriaren 22 eta 23an ospatuko da

Igandean erakusketa mikologikoa osatuko dute karrapean

JM BARRIOLA

ALKE kultur taldeak eta Mendibil mendi taldeak, mikologia zaleen laguntzarekin IX. mikologiaaldia antolatuko dute urriaren 22 eta 23rako. Ordurako perretxikuak ateratzen hasia espero dute eta igandeko erakusketa mikologikoa bilduma polita ikusgai jartzeko aukera izatea. Larunbatean 09:30ean haur eta gurasoak mendira aterako dira perretxiku bila eta arratsaldean sailkapenak egiten dituzte



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ehunka espezie desberdin ikusteko aukera izaten da erakusketa mikologikoa.

karrapeko tarbarnan. Asteazkenean bildutako aleak ere karrapera eramateko aukera izaten dute herritarrek. Igandean 11:30etatik aurrera zabalduko da mikologia erakusketa eta haurrentzako tailerrak,

eskolan egindako lanen erakusketa eta perretxi-ko dastaketak ere izanen dira.

## Ba al zenekien

**ETBkoak herrian grabaketak egiten ibili direla. Auzolan saiokoak egin zituzten udan, gero Herri txiki infernu handikoak eta berriki Pintxo pote programarako.**



ARGAZKIAK: JM BARRIOLA ETA J. OTXOTORENA

## X. Aurrera Eguna giro bikainean

Urriaren 1ean egun guztiko pesta izan zen Aurrera Egunaren bueltan eta jende ugari ibili zen plaza inguruan. 160 lagun bildu ziren karrapean egin zen bazkideen bazkarian eta haurrentzako ekitaldiak, txaranga, dantza saioak... ere ez ziren falta izan.



ARGAZKIAK: P. FEO

## Jeiki abesbatzak kontzertua eman zuen Izaietan

Ohikoa izaten da abesbatzako kideak Leitza elizan emanaldia eskaintzea, ez da horren ohikoa ordea, mendian izei artean kantuan aritzea. Jeiki abesbatzako kideek urriaren 2an eman zuten kontzertu ikusgarria Leitza elizako monumentu naturalean. Halako toki ikusgarrian emanaldia eskaintzen zuten lehenbiziko aldian eta jendetza bildu zen. 100 aulki jarri zituzten izeien artean eta ez ziren aski izan bertaratu ziren ikusle eta entzule kopuruentzat. Oso pozik zeuden antolatzaileek egindako lanaren ondoren jasotako emaitzarekin.

## MARTXORA ARTE

Oialdetxoko gaztetxokoa urriaren 30ean irekiko dute

Urritik martxora arte, igandero egonen da zabalik 17:00etatik 20:00etara. Gune hau 12-16 urteko gazteei zuzenduta dago eta aisialdian, joku eta jardueren desberdinen bidez balore eta gaitasun desberdinak lantzea da helburua. Bi begirale izango dituzte: Manex Moreno eta Edurne Zabaleta. Oialdetxokoa ibiltzeko sozio txartela egin behar dela gogorazi dute. Bide batez, eskerrak eman nahi izan dizkie Guraso Elkarte Katolikoko kideei lokala uzteagatik, Amazabal Institutuko Guraso Elkarte kideei ekimena antolatzeagatik eta Udaleri proiektua finantzatzen laguntzeagatik, baita orain arteko parte-hartzaileei ere.



# ARESO

PROIEKTUA → 3.700 EURO

## Oinezkoentzako bidea egiteko erabiliko da mendi martxako dirua

Herritarren artean erabaki dute zertara bideratu dirua

### Juana Mari SAIZAR

Aurtengo mendi martxako diru etekin-ekin zer egin erabakitze-ko bilera antolatu zuen Udalak, herritarrekin eta mendi martxan boluntario lanetan aritu zirenekin. Denera 3.700 euro inguru daude, aurtengo irabaziei lehengo urteko mendi martxako etekinak gehituta. Aukera ezberdinak jarri zituzten mahai gainean eta oinezkoentzako bidea osatzeko erabiltzea erabaki da. Udalak aurrekontuaren zati bat bideratua du proiektu horretarako eta Telenxonera arte egina dagoen bidea txukuntzeko asmoa dago. Mendi martxako etekinak gehituziur aski Sutegiraino bukatzeko modua egongo da, bide guztia ongi osatuz.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Ulizarko ondarearen inguruan hitzaldia eta auzolana

Urriari sartuta udalak auzolana deitu zuen lehen astebururako. Ulizarko ermita zaharrean Burdina taldeko kideekin batera indusketa lanak egiteko zegoen deituta auzolana. Lehenik irailaren 30ean hitzaldia izan zen udaletxean, indusketen harira hau ere. Ondoren hurrengo goizean eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere herritar batzuk eta Burdi taldeko beste batzuk gora igo ziren eta goiza han pasa zuten. Eguerdian Pake-Toki elkartearen zuten bazkariarekin borobildu zuten goiza.



**Pertsonaia**  
Itxaso ONSALO

Arpana zorrotz eta txapelak buruan

Itxaso Onsalo denboraldi ederra egiten ari da aurtengoan ere arpana txapelketetan. San Ferminetan Nafarroako txapela jantzi zuen eta irailaren 25ean Euskal Herriko Emakumeen trontza txapelketa ere irabazi zuen, Leire Astiasaran bikotearekin batera. Esan behar da gainera bi txapelketa horietan erakustaldi bikainak eman eta errekor marka berriak jarri dituztela. Denboraldia amaitzeko Euskal Herriko txapelketa mistoaren finala jokatzeko falta zaio, urriaren 12an ospatuko dena. Beraz zorte asko izan dezala azken txanpan, eta batez ere zorionak urte oparo honengatik!

### EHIZA DENBORALDIA

## 14.000 euro inguruko irabazia utzi dute uso-postuek

Irailaren 17an egin zen uso-postuen lehenbiziko enkantea eta sesteoa egin ondoren, irailaren 24an izan zen bigarrena. Aurtengoan 14.000 euro inguruko irabazia izan da enkanteetan, baina azken irabaziaz handixeagoak izango dira postuen txukuntetatik ere irabaziaz izango dituelako aurten Udalak. Postua hartu dutenei aukera eman die diru kopuru bat ordainduta postua prest hartzeko (herri langileek txukunduko lukete). Orain denboraldi aurreko lanak bukatuta, ehiztariak mendira lehenbiziko bueltak egiten hasiak dira. Iaz egon ziren uso-pase eta errekorrak gogoan, aurtengorako gogoz omen dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Kinto bazkarian, giro ederrean

1959 eta 1964 artean jaiotakoek kinto bazkaria egin zuten urriaren 1ean eta argazkian ikus daiteke, giro ederra izan zutela. Hauen ondotik, 1955 eta 1958 artean jaiotakoek txanda izango da. Iaz egin zuten lehenbiziko kinto bazkaria eta aurtengoa urriaren 22an izango da. Ea herriko beste kintoak animatu eta ohitura polit hau zabaltzen den!

# BAZTAN

GIZARTEA → IKASTETXEETAKO MOLDATZE LANAK

## Herrietako eskoletan Udalak hainbat lan egin ditu udan

Lekarozko eskolaren berritze eta irekitzea, Gartzaingo eskolaren egokitzapena eta Ikastolako jangelaren handitzea, bertzeak bertze

### TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, aurtengo uda sasoiaren erdian ardurapeko eskoletan lan desberdinak egin ditu Balleko Etxeak. Lan nagusiak Gartzain eta Lekarozko herriko eskoletan eta Baztan Ikastolan egin dira. Gainerakoetan ohiko mantentze lanak egin dira: konpoketak, margoak eta gisakoak.

Gartzaingo herriko eskolari buruz eraikina franko zaharrik eta tokiz eskas zegoen. Modu horretan, goitiko solairuan psikomotrizitate gela eta irakasleen gela egin da eta leihoen aldaketa ere bai. Bertalde, beheko solairuan zola eta leihoak aldatu dira. Lan hauek Berdaitz eraikuntza enpresari 57.969 euroan eman zitzaizkion. Aurrekontua Baztango zortzi enpresari galdegin zitzaien. Aipagarria

da Nafarroako Gobernuak lan hauetarako ez duela laguntzarik eman, horretarako dirulaguntzen deialdiko irizpideak arrazobide gisa harturik. Hala, inbertsio osoa Baztango udalak egin behar izan du. Bertalde, aurtengo udan ere, Lekarozko herriko eskola irekitzeko lanak egin dira. Eskolaren eraikina osorik zaharberitu da: zola, barneko banaketa, leihoak... Inbertsioa Baztango udalaren eta Nafarroako Gobernuaren artean egin da. Denera 75.000 euro kostatzen da eta Construcciones Arakan enpresari eman da, eskaintza hobereena berea izan baita. Modu berean, Baztan Ikastolan jangela handitu da. Orain artio jangela ttiki gelditurik handitzeko lanak egin dira, horretarako tabike bat bota eta zola berritze lanak egin dira. Lan horiek udaleko enplegu babestuko langileek eta mantentze lanetarako egin dituzte. Materialean 3.500 euroko inbertsioa egin da. Aipagarria da, halaber, Oronozko herriko eskolan hurrengo jostatzeko parkean egin den zola berritzea. Alde batetik hormigoi geruza eman da eta ondotik, zola berata paratu da. Lan hauek Bittor Elizagoien eraikuntzak enpresari eta Mader Playk 6.000



UTZITAKO ARGAZKIA

### Suinki euskaltegi berria inauguratu du AEKk Elizondon

Elizondoko Baztan Berri karrikaren 7.ean dagoen Suinki euskaltegi berriaren inaugurazio ekitaldia ospatu zuen Baztango AEK-k irailaren 23an. Gan den urtean klase batzuk eman bazituzten ere, egun horretan egin zuten ikasturte berriko irekiera ekitaldia goitiaz berri.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Gorostapolo frontoia berritzeko lanak eman ditu Udalak

Erratzuko Gorostapolo auzoko frontoia konpontzeko lanak Arakan enpresari eman dizkio Balleko Etxeak. Lanen aurrekontua 35.090 eurokoa (BEZ barne) da eta egin beharreko lanak: pilotalekuko paretak zartzatzea, zola eta harmailak berritzea eta sarea aldatzea. Lan hauek egiteko lau eskaintza izan ziren eta ekonomikoena Arakanena izan baitzen, udalak lanak berari eman dizkio. Egin beharrekoak urtea akitu baino lehen egin beharko ditu. Gorostapolo frontoia 1916an egin zuten eta azkeneko moldaketak iragan mendeko 70. hamarkadan. Pilotalekuaren egoera aski eskasa da; berritze lanak eginda ttukun geldituko da.

euroan egin dute. Gainerakoan, bertze eskoletan ohiko mantentze lanak egin dira: margoketak, leiho konpoketak eta honelakoak.

### Ba al zenekien

Uraren Bailarak eta Cedernak antolatutako Bidasoko Trenbidearen mendeurrenari buruzko erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean ikusgai izanen dela urriaren 15etik azaroaren 7ra, astelehenetik larunbatera, 18:00etatik 20:00etara.



KULTURA → URRIAREN 4AN AURKEZTU ZUEN IRUÑEAN

# Lekarozko kolegioaren historia bildu du Fermin Goñi idazleak

‘Lecároz en 100 palabras’ izenburuarekin

## TTIPI-TTAPA

Fermin Goñi idazleak urriaren 4an Iruñean aurkeztu zuen *Lecároz en 100 palabras* liburuak. Lekarozko kolegioko ikasle ohien elkarteak argitaratu du, beraien sorreratik ehun urte bete direnean, ikastetxea eta bertako irakasle, ikasle eta langileak omenduz.

Liburuak, historian gibelera egin eta 1888ra darama irakurlea. Ikastetxea eraiki zenetik hasi eta datu, dokumentu, pertsonaia, gutun eta hamaika pasadizoren bitartez, 12.000 ikasle baino gehiago izan zituen ikastetxearen gorra beherak jasotzen dira. Lekarozko kolegiok mundu mailako ospa izan zuen aitzindaria izan zelako hainbat arlotan: irakasleen maila, aurrerapen teknologikoak, instalazioak... eta baita ikasleen artean sortu zen familia handiagatik ere.

Lekarozko kolegioa 1888an sortu zen Baztan, Donostia eta Iruñeako hainbat herritarrek egindako ekarpenen esker. 1967an ireki zen, lehenbizikoaren ondoren eraiki zen bigarren ikastetxea momentuko berrikuntza guztiak zituena: hizkuntza laborategia, natur-zientzia, fisika eta kimikako bulegoak, liburutegi osatua... Europa eta Esta-



ARGAZKIA: LECARÓZ EN 100 PALABRAS LIBURUTIK

Jesus Maria de Leizaola politikari ezaguna, bertze zenbait ikaslerekin, kolegioaren atarian.

tu Batuetako zenbait erakunde bisitatu zuten kolegioa eskaintzen zuen ikaskuntza metodo aurreratuak erakarrita.

Kolegioak orkestra sinfonikoa, abesbatza, eta argazki-laborategia zituen eta 1910ean futbol taldea ere osatu zuten, Osasuna sortu baino hamar urte lehenago. 1912an euskara klaseak ematen zituen lehenbiziko ikastetxea ere

izan zen eta baita Espainian zine proiektore bat izan zuen lehenbizikoa ere.

Lekarozko kolegioko ikasle izan diren aunitz, ospetsuak izan dira beren lanbidean: Jesus Aizpun eta Jesus Maria de Leizaola politikariak, Jorge Oteiza eskultorea, Nicanor Zabaleta eta el P. José Antonio Donostia musikariak, Pedro Miguel Etxe-

nike fisikaria, Carmelo Balda pilotaria, Zaldúa, Jones eta Glaría futbolariak, Martín Berasategi sukaldaria...

Egileak adierazi du liburuak idazteko esperientzia hunkigarria eta aldi berean gogorra ere izan dela. «13.000 argazkitik goiti, ehunka agiri... izan ditugu eskura eta ez da erraza izan guzti horien artean aukeraketa egitea».

## FLASH

### XVII. Kirrikoketa Besta Arizkunen urriaren 22an

Jo ala Jo Kultur Taldeak hamazazpigarren urtez antolatutako Kirrikoketa Besta urriaren 22an ospatuko dute. Egun osorako ekitaldiak prestatu dituzte. Goizean, 11:00etatik aitzinera sagardogintza erakustaldia egingen dute XVIII. mendeko dolaretxean: sagar-jotzea, tinkatzea, dastaketa eta kupelaratzea. Kirrikoketa ere joko dute eta horrez gain, herrian taloak dastatu eta dantzak ikusteko aukera izanen da. Artisauen lanak ere izanen dira. 14:30ean bazkari herrikoia egingen dute eta ondotik kalejira berezia egingen dute. 20:00etan parti aparta iragarri dute Kupelategian.

### Helduendako antzerkia Iruritan

Urriaren 23an, igandean 19:00etan *Muxuak* helduendako antzerkia ikusgai izanen da Iruritan Gizarte Bilgunean. Baztango Kultura Batzordeak 2016ko Arte eta kultura egitarauaren baitan antolatutako emanaldirako sarrera doan izanen da.

**Mármoles SOULE**  
HILETA ARTEA  
T. 948 453 444 | M. 688 605 182  
ARIZKUN

**Pierresenea**  
OSTATU · JATETXEA  
Jaki tipikoak · Etxeko giroa  
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043  
ORONÓZ - MUGAIRI

GRUPO TANATORIO TALDEA  
**IRACHE**  
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA  
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)  
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)  
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA  
ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

# BAZTAN

GIZARTEA → ARITZAKUN-URRITZATE-GORRAMENDIN

## Habitata berreskuratzeko lanak egin dituzte udan hiru lagunek



UTZITAKO ARGAZKIA

Gizarte bazterkeria arriskuan daudenak

baziko gune berezian espezie exotiko inbaditzaileen zuhaitzak kendu dituzte.

Zehazki, haltzadiak babesteko lanak egin dira bereziki (ibai bazterretan dauden zuhaitzak, ibaiertz horiei eusteko garrantzitsuak direnak) espezie exotiko inbaditzaileen zuhaitzak moztuz eta eraztunduz, *Buddeleja davidii* espezie inbaditzailearen landareak eskuz ateraz; eta zaborrak kentzeko ekintza osagarriak egin dira. Zonalde hori Irubelakaskoko erreserba na-

lbaie bazterretako haltzadiak babesteko eta espezie inbaditzaileak kentzeko lanak egin dira.

turalaren alboan dago, gainera, habitat eskasa dago bertan eta mazelako haltzadiak mehatxatzen dute, habitaten Europako zuzentarauak lehenetsunezko zat jotako habitatak direnak. Ekintza hori Natura 2000 sareko espazio horren Kudeaketa Planean ezarritako kontserbazio-neurrien barnean dago.

Lanak ekain eta abuztu artean egin ditu TASUBINSA enpresak, Nafarroako Gobernu-

ren eta La Caixa Gizarte Ekintzaren artean sinatutako lankidetzahitzarmenaren barnean. Akordio horren arabera, *Espazio naturalen eta gizarteratzeko programa* izenekoa, erakunde horrek guztira 350.000 euro jartzen ditu Nafarroako gune naturalak kontserbatzeko eta hobetzeko bederatzi jarduerak egiteko 2016. urtean.

Lankidetzaren publiko-privatu honi esker, habitata berreskuratzeko

ko askotariko jarduerak egin daitezke, esaterako: abelbideak mugatzea, hezeguneak sortzea, fauna eta florako lehenetsunezko espezieak kontserbatzea, eta Natura 2000 Sare barneko espazioen barnean lehenetsuna izatea. Proiektuak Nafarroako Gobernuak Navarra Gestión Ambiental de Navarra, S.A (GAN) enpresa publikoak idatzi ditu, eta obrak enpresa horretako langileek zuzendu dituzte.

## ETXEBIZITZEN SUSTAPENA ALMANDOZEN



**\*10.000€-ko sukaldea barne**

### Ezaugarriak:

- 101 m<sup>2</sup>ko etxabea lursailarekin
- 1º solairua, 69 m<sup>2</sup> eta 75 m<sup>2</sup>ko etxebizitzak
- 144 m<sup>2</sup>ko teilatupea
- Distribuzioa bezeroak aukeran

**\*126.000€**

**S** AROBE ERAIKUNTZAK  
 info@sarobe.eus  
 www.sarobe.eus  
 629 687 171  
 mmstudio-k diseinaturia  
 www.mmstudio.info - 651 776 998



EPAITEGIAK → URRIAREN 6AN IRUÑEAN

## Aroztegia SLren salaketagatik deklaratu dute alkateak eta alkate ohiak

Prebarikazio delitua egotzita joan behar izan dute Joseba Otondok eta Garbiñe Elizegik

### TTIPI-TTAPA

2016ko maiatzaren 2an Palacio de Arozteguia SL. enpresak Baztango Ehbilduko ordezkari eta ordezkari ohien aurkako kereila paratu zuen Iruñeko 5. Instrukzio auzitegian. Joseba Otondo Bikondoa, gaur egun alkate eta Batzar Nagusiko lehendakaria eta 2011tik 2015era alkate eta Batzar Nagusiko lehendakaria izan zen Garbiñe Elizegi Narbarteri prebarikazio delitua egotzi

diete. Batean, legez kontrakoa izendatu zen proiektuaren epaiketan Udala erretiratzeagatik eta bertean berri bat osoko bilkurara «berandu» eramateagatik.

Baztango EH Bilduk oroitarazi duenez, «Aroztegiako proiektua proiektu urbanistiko espekulatzailea da, Baztango paisaia eta egitura soziala hankaz gora jarriko lukeena. 2010ean hasierako Aroztegiako proiektu espekulatzailea herritarren borondatearen kontra onartu zuen Baztango Udalak Virginia Aleman Baztango Udaleko alkate zela (gaur egun Geroa Baiko parlamentaria), UPNren gobernuak azken oniritzia eman arte. Proiektu hura epaitegiek legez kontrakoa izendatu zuten».



ARGAZKIA: ITXASO ARIZMENDIK UTZIAK

### Giro bikaina izan dute Oronozko errebestetan

Ohiturari eutsiz iraileko azken larunbatean besta giroa nagusitu da Oronozen. Eguerdian zikiro jatea, bazkalondoan musika eta dantza, ilunabarrean herritarren herri kirol saioa (argazkian), indarrak berreskuratzeko luntxa eta gauean berriro ere dantzarako aukera izan zuten, goizaldera arte luzatuz besta.

2014an Udala eta Batzar Nagusia Lekarozko lur ez-urbanizagari birkalifikazioaren kontra zeudela ikusirik, UPNren gobernuak proiektua UGPSa bezala tramitatzea onartu zuen. «Baztango tokiko entitateen autonomia gainera pasatuz eta UGPS figura inposizioko erabiliz, hauteskundeetako bi egun fal-

ta zirela UGPSa onartu zuen. Geroa Bairen gobernuak berriz, UPNren jokaldiari azken oniritzia eman zion 2015ko urte zahar bezperan», dio EH Bilduren oharrak. Kereila hau jazarpen judizial politiko baten kanpaina besterik ez dela uste du, baina mehatxu eta jazarpen guztien gainera EH Bilduk «herritarren borondatearen defen-

tsan, lurraren defentsan eta kapitalismo espekulatzailearen kontra segituko du lanean. Ez gaituzte isilduko eta ez gaituzte geldituko».

Honela, Baztango alkate eta alkate ohiarekin elkartasuna adieraztera hainbat herritar hurbildu zen urriaren 6an Iruñeko Auzitegiaren egin zen elkarteratzean parte hartzera.

### DIRUA EMATEN DUEN JENDEAREN IZENA AGERTUKO DA KARTELEAN

## Euskal Nobela Beltzaren Astea antolatzeko 5.000 euro bildu nahi dituzte

2017ko (H)ilbeltzaren astea antolatzen hasiak dira dagoeneko, ilbeltzaren 16tik 22rat izanen da. «Euskal nobela beltzaren astea antolatzeko, ordea, sosa behar dugu, eta aurten sosa eskatzeko kanpaina erakargarria antolatu dugu» diote (H)ilbeltzatik.

Bi urtez antolatu dute Euskal Nobela Beltzaren Astea eta muxu truk aritu dira parte hartu dutenak. Aitzinerat segitzeko asmoa dutenez, sortzaileei dagokien sosa emateko modua bilatu nahi izan dute: «Gure helburua da urtero sosa eskatu behar ez izatea eta heldu den urtetik aitzin laguntza deialdietan parte hartuz behar duguna lortzea. Baina abiatzeko sosa da behar duguna». Horregatik sortu dute kanpaina hau:

*Zure izena gure izana. Izan (H)ilbeltza.*

Aurten aterako duten kartelean dirua ematen duen jendearen izena agertuko da. Kartel orijinala izanen da beraz, eta aurtengoa izanen da aukera bakarra. Bakoitzak jarriko du nahi duen sosa, bere ahalmen, nahi eta borondatearen arabera. Horretarako kontu korronte hontan sosa sartzearekin aski: ES3008 0043 12 3398382022. Kontzeptuetan kartelean agertuko den izena paratu behar du jendeak. (H)ilbeltzean berean edo ondotik kartela eskuratzeko aukera izanen du sos emaleak.

Urriaren 1ean hasi eta azaroaren 1ean akituko dute sos bilketa eta beraien helburua 5.000 euro lortzea da, jaialdi duin bat egiteko aski.

**BIDEGAIN** T. 948 580 496  
**ARRAINDEGIA ELIZONDO**  
LASTER LEKUZ ALDATUKO GARA  
Orain Jaime Urrutia, 22  
Laster Jaime Urrutia, I

## URDAZUBI

GIZARTEA → URRIAREN 4AN AGERRALDIA EGIN ZUTEN IRUÑEAN

# SOS Alkerdi: «Harrobiak lanean segitzen du eta hori larria da»

Bide luzea egin dela eta lorpen handiak izan direla uste dute

## Iñigo IMAZ

Sustrai Erakuntzak, Arankoa gabinete Juridikoak eta SOS Alkerdi Plataformak agerraldia egin zuten urriaren 4an Iruñean, Alkerdiko lezeetan eginko aurkikuntza berrien garrantzia azpimarratu eta harrobiaren txikizioarekin amaitzeko egindako ibilbidea baloratzeko.

Sustrai Martin Zelaiak paleolito garaiko artea gordetzen duten kobazuloen kontrako sarraskia salatu zuen. 2014an urdazubiaren arazoaren berri izan zutenetik, Sos Alkerdirekin elkarlanari ekin zioten. Zelaiak Nafarroako Gobernuaren jarrera salatu zuen, bai gaureguno gobernuarena bai aurreko gobernuarena, eta borroka honetan Sustrai zuen parte hartzeko legitimitatea ukatu nahi izana salatu nahi izan zuen.

Arankoako Idoia Zulet abokatuak, ondarearen nahiz ingurunearen babesaren aldeko borroka juridikoaren nondik norakoak aipatu zituen, ekimeneren artean, prozedura administratiboaren anulazioaren eskaria, izan ere herritarren partehartzea ez baitzen bermatu 2013ko baimena ematerakoan.

Sos Alkerdiko Patxi Iriartek eta Malenek har-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

## Margo lehiaketa egin dute lehen aldiz

Europako Ondarearen Jardunaldiaren baitan hainbat ekitaldi antolatu ziren urriko lehen aste honetan. Lehen aldiz egindako margo lehiaketan, Sunbillako Eva Irazokik lortu zuen 1.000 euroko lehen saria, Angel Lanau urdazubiarrak bigarren saria (700) euro eta Landetako François Cruisemanek hirugarrena (300 euro).

tu zuten hitza. Iriartek bere poza erakutsi zuen 2013ko baimena atzera bota zuelako Nafarroako Gobernuak, eta lanen ondorioz leize berri bat aurkitu delako harrobi azpian, historiaurreko Nafarroako margo zaharrenekin. Ondarearen egunean antolatutako hitzaldia eta afarian, herri ekimenaren aldeko 800 euro bildu zirela ere aipatu zuen.

Malen Vilchesen hitzetan, «bide luzea egin dugu eta lorpenak handiak izan dira. Harrobiaren lanen luzapenerako espediente baliogabetu dute eta uste dugu berriro hasi den espedientearen ondorioz ezezkua emanen diotela proiektuari eta harrobia gelditu beharko dute.

## «MARGOETATIK 25 METRORA LANEAN»

Hala ere, kritiko agertu zen harrobiak lanean segitzen duelako «eta hori larria da». Izan ere, Alkerdiko margoetatik 25 metrora lanean ari dira. Kultura Sailaren ebazpenak ez zituen lanak debekatu, luzapena baliogabetu da baina lizentziak indarrean segitzen du: «ez Kulturak ezta Udalak ere ez dute lizentzia baliogabetu, eta hori Nafarroako ondarearen 37,2 artikuluaen kontra doa. Lanak gelditzen ez badituzte instituzioak salatu egin beharko ditugu berriro ere».

Plataformako iriziz, Udalarik babes plan berezi bat egitea dagozko eta Aranzadik eta be-

re adituek hasitako ikerketekin jarrai dezatela eskatu diote Kultura Sailari. Eta balorazio gisa, urdazubiarentzat esperientzia aberatsa izan dela eramandako borroka hori, denak elkartzuz eta elkarrekin posible dela herritarren lana eta borrokaren bitartez gauzak aldatzea: «Ikasi dugu ere badirela gauza legalak direnak baina bidezkoak ez direnak. Adibidez leherketa planak administrazioak enpresarekin onartzen ditu eta prozedura iluna da, ez baitiete ez herriari ez udalari eta ez beste gobernu sailei ezagutzea ematen. Botere publikoek holako legeak aldatu behar dituzte, parte-hartzea posible eginez».

## IKASTURTE BERRIA

Ugarana emakume elkartearen ekimenak abian

## I. IMAZ

Ugarana emakume elkarteak urtero antolatzen dituen ekimenak abiatu dira ikasturte honetan ere. Horien artean, garrantzia handia dute ikastaro ezberdinek. Urte urte herritar gehiagok ematen dutenez izena, azken urteotan toki faltarekin arazoak izan dituzte ikastarotatik parte hartzen zutenek. Ikasturte honetan, haatik, Herriko Etxeak Leorlaseko eskola publikoaren gimnasioa zabaltzea erabaki du eta arazorik ez dela egonen espero dute. Ikastarotatik izena emateko, 15 euroko matrikula ordaindu behar da, eta gero ikastaro bakoitzaren araberako kopuruak ordaindu behar dira.

Alde batetik, Jon Medrano irakasleak stretching-eko eskolei ekin zien irailaren 19an. 2016-2017ko ikasturtean 3 talde izanen dira astelehenero eta ordu beteko iraupenarekin. Ikastaro hauek ordu hauetan emanen dira: atsaldeko 17:30, 18:30 eta 19:30etan.

Pilates ikastaroak Novaren eskutik urriaren 4an hasi ziren. Astearteko ordu eta erdiko bi saio izanen dira, 18:30 eta 20:00etan.

Akitzeko, Jone Bengotxeak aruten ere Zumba saioak zuzentzen ditu asteazkenean, urriaren 5etik aurrera eta ordu betez. Klaseak 19:30ean izanen dira.



# ZUGARRAMURDI

TURISMOA → INOIZKO KOPURURIK HANDIENA

## 28.000 bisitari sartu ziren lezeetan abuztuan

Gan den urte osoan 100.000 lagun baino gehiago izan ziren

### Margari eta Koro

Gan den urtetik huna marka guztiak gainditu ditu leze eta museoan izan diren bisitarien kopuruak. Adibidez, gan den abuztua izan da lezeen historian jende gehien sartu den hilabetea: 27.992 lagun (horietako 7.546 museoan ere sartu ziren).

Bertze datu borobil bat ere badago, 100.000

lagun baino gehiagok bisitatu zuten lezea gan den urtean (107.548 lagunek).

Aipatzekoa da bisitari erdiak Nafarroako eta Euskal Autonomia Elkartekoak direla. Hauen ondotik kataluniarrak heldu dira (%16a), eta pittaka-pittaka nazioartean ere ezagutzen hasia da lezea (kopuruaren %15a).

Alex de la Iglesiaren pelikulak zerikusia handia dauka aferan, baina lezeko langileen profesionaltasuna eta prestutasuna ere kontuan hartzea da.



### Ba al zenekien

Urdazubi eta Zugarramurdiko Jubilotekak bi urte bete dituela eta bi udalei eskertzeko besta egin zutela urriaren 4an Urdazubin. Evaristo Mentaberri alkateak jaso zuen oroigarria Zugarramurdiko udalaren izenean.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Kepa Junkeraren emanaldi ikusgarria

Urriaren 1eko gauean sekulako ikuskizuna ikusteko aukera izan genuen lezean. Berez, Kepa Junkeraren kontzertu bat zen, baina egiazki hori baino aise gehiago izan zen. Kepa Junkera *Sorginak* taldeak lagundurik aritu zen (ez nahasi Zugarramurdiko antzerki taldekoekin). Neska gazte hauek perkusioko hainbat tresna jotzen dituzte, eta gainera kantuan eta dantzan ere aritzen dira. Horretaz gain, aizkolari bat, harrijasotzaile bat, Iturengo joaldunak, eta herriko *Sorgin Haizea* taldea aritu ziren Kepa Junkerak jotzen zituen musikaren doinuak segituz. Diskoaren izena *Maletak* denez, maleta pila bat su handi batean errez bukatu zen ikuskizuna. Jende multxo pulita hurbildu zen ikustera (500 bat lagun), baina ikusi ez zenutenean, luze gabe ETB-1en ikusteko aukera izanen duzue.

TTIPI-TTAPA  
ALDIZKARIA  
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa  
www.facebook.com/ttipi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

**BURKAITZEA**  
JATETXEA - ERRETEGIA

Eguneko menua,  
Plater konbinatuak,  
Karta, Bazkariak,  
Sandwichak...

Taldeentzako bazkariak

Berezitasunak:  
Olagarroa, rodabailoa eta txuleta

Alkerdi auzoa, Zugarramurdiko errepidea | URDAZUBI | T. 948 599 296  
restaurantburkaitzea@gmail.com

JATETXEA-ERRETEGIA  
**MONTXO**  
OSTATUA · TABAKO-DENDA

Egunero irekia  
09:00etatik  
02:30era

Dantxarinetatik  
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK  
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK  
ESPEZIALISTAK ARRAN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039  
montxoblanco@gmail.com



# SANTU GUZIEN EGUNA 1

## Azaroak

Norberaren sinismen erlijiosoak edozein direla ere, edo sinisten ez bada ere, azaroaren 1a egun berezia da euskal herritarren agendan. Eliza Katolikoarendako Santu Guztien Eguna da, hildakoak gogoratzeko eguna: hilerrira loreak eraman, mezara joan, familiak elkartu... baina gainerakoek ere modu berezian gogorazten dituzte hildakoak. Bakoitzak bere erara, baina maite ditugunak gogoan.

CESAREO eta ALBARO SOULE

## Mazeta eta zintzelaren hirugarren belaunaldia

Hargintza belaunaldiz-belaunaldi dirauen lanbidea da Arizkongo Souletarren etxean. Cesareo Souleren aitak hasitako bidea, Cesareok berak jarraitu zuen, eta orain, Albaro semeak hartu du lekukoa. Lanbide beraren hiru belaunaldi dira.

Erretiroa hartua da Cesareo, baina 40 urtez hargin lanetan aritu ondotik. «28 urterekin hasi nintzen, nire aitaren medioz. Aita hargina zen, eta bera ikusiz, bere erremintekin hasi nintzen». Aitortu digu, «hasmentan, erreminta haiek ez nituela gustukoak», baina gero lanari gustua hartu zion: «gustuko erreminta lortu nuen». Hasmenta «zaila» izan zela dio, eta gainera, «egurra ala harriarekin hasi zalantza izan nuen. Egurra lantzeko tresna ere erosi nuen, baina azkenean, harria aukeratu nuen». Ez da damutzen egindako aukerarekin, urteekin «gero eta gusturago» sentitu baita. Harriarekin «hobe-ki» moldatzen zela ere adierazi digu. Eta eskua baduen seinale dira lortu dituen sariak. Behin baino gehiagotan saritua izana da: «duela 10-12 urte Bergerac-eko (Frantzia) Nazioarteko Eskultura Lehiaketan parte hartu nuen, eta bigarren gelditu nintzen. Hurrengo urtean ere bigarren egin nuen». Hain zuzen, egindako lanean artean Frantzian egindako horiek omen ditu maiteenak.



### UR BIZIETAKO MONITOREA ZINTZELAREKIN

Albaro semeak ttikitatik ezagutu du aitaren lanbidea: «betitik ikusi izan dut etxean harriarekin lanean, eta niretako normala izan da. Ez bazen etxean, hilerrietara joaten zen lanera eta berdin zuen noiz, gauez, goizez, euriarekin, elurretan...». Hori ikusita «miresmena» sentitzen zuela aipatu digu. Gogoan du «aitak harrietan lauburu ttiki batzuk marrazten zituela, eta ni, 6-7 urterekin, mantso-mantso harria lantzen hasten nintzela». Eta hara non, ikasketaz ur bizi, erreskate, rafting... eta halakoen monitorea bada ere, aitaren bideari segida ematea erabaki du. «Ez nuen inoiz pentsatuko urteak pasatu eta gero, aitarekin lanean hasiko nintzenik». Onartu digunez, «bere momentuan zaila izan zen ikasitakoa uztea. Baina zorionez, tarteka gozatzeko aukera izaten dut, kayak edo rafting eginez».

«Ez nuen inoiz pentsatuko urteak pasatu eta gero, aitarekin lanean hasiko nintzenik»

Semea ondoan ikusita, aitak «poz handia» sentitzen du. Bistakoa da semea ere kontent dagoela: «etxean lanbide bat zela ikusten nuen, eta segida eman behar niola, are gehiago, ofizio berezia dela ikusita. Bere gauzak izanen ditu, bai, baina niretako etxean bertan lan egiteak ez du preziorik eta aunitz baloratzen dut». Aita ere ondoan izanen du, laguntzeko preset: «erakusten saiatzen naiz, harriak erakusten, harrien sekretuak... Bere ondoan egoten saiatzen naiz», aipatu digu Cesareok. Gainera, semeak «eskua baduela» dio, «alderdi polita du».

«Domisaindu Egunaren bueltan, poliki lan gehiago izaten dugu»

### LAN HAUNDIKO GARAIA

Hilobietako hilarriak, panteoiak, oroitarriak, ezku-tuak, etxeen izenak... Harriarekin denetariko lanak egiten dituzte Bozaten duten tailerrean. Eta denak eskuz, horrela gozaten dutelako. Harri klase aunitz erabiltzen omen dituzte horretarako: «denetarik erabiltzen dugu; kanpokoak, Baztan-goa...», adierazi digu Cesareok. Saldu, aldiz, «gehiena Iparraldean eta inguruan». Baina munduan barrena ere ba omen dira bere lanak: Parisen, AEBetan, Madrilan, Argentinan... Batez ere hilerrietarako lanen eskaerak jasotzen dituzte, eta Domisaindu Egunaren bueltan, «poliki lan gehiago izaten dugu», azaldu digu Cesareok. «Batez ere granitoa eskatzen dute. Hegoafrikatik datorren materiala da, material ona, kalitatekoa».

# SOULE

## HILETA ARTEA

T. 948 453 444 | M. 688 605 182  
ARIZKUN







**saroba**<sup>®</sup>  
gozotegia okindegia

p<sup>o</sup> de eztegara 25 bajo  
31780 berá (navarra) t.948 63 08 99  
[www.sarobe.net](http://www.sarobe.net)



**JAKONE-GOZOTEGIA**

*Bañueloak eta  
etxeko produktuak*

Altzate, 19 · BERA · Tel: 948 630 786

## Santu guztien eguneko zaporea...

Haize-kruxpeta eta santu hezurak izaten dira azaroaren 1arekin lotzen diren mokadu goxoak. Data honen bueltan bakarrik egiten diren gozoak dira eta eskualdeko gozotegietan aukera zabala izaten da: krema, txokolate edo esne-gainez betetako haize-kruxpetak; marmelada, txokolate edo aingeru-adatsez betetako santu-hezurak... Gustukoenak aukeratu eta on egin!



## Lore freskoak: falta direnei egindako maitasun eskaintza

Loreak erabili izan dira antzinatik hildako senide eta lagunak omentzeko eta gaur egun ere, ohitura bizirik mantentzen da. Horregatik, santu guztien egunean lorez janzen dira hilerriak eta baita errautsak botatako parajeak ere.



Mota guztietako eskakizuei erantzuteko milaka lore izaten dituzte lore-denda eta haztegiak. Hala ere, krabelinak, krisantemoak eta liliumak dira gehien saltzen direnak, denbora dezentean frexko mantetzen direlako. Horiekin batera, larrosak eta margaritak ere aunitzek aukeratzen dituzte, lore-sorta benetan ederrak osatuz.



Koloreei dagokienez, zuri-gorriak dira arrakasta gehien dutenak baina urtetik urtera, kolore deigarriagoak erabiltzen dira: morea, fuchsia, arrosa, horia... Lore sortari elementu berderen bat gehitzea ere gomendatzen dute. Hostoak, iratzeak, kamelia adarrak... loreekin konbinatzen badira konposizioak itxura osatuagoa lortzen du.



**Lore-denda**

**Larunbat arratsaldeak eta igandeak irekia**

Krisantemoak, azaleak, ziklamenak zentru artifizialak eta naturalak

Bisitatu gure **postua**  
Elizondoko ortzegunelako merkatuan eta Elizondoko ferietan plazan

**NARBARTE • T. 948 59 22 00**

FLORISTERIA

**IRIS**

LOREDENDA

DOMISAINDU EGUNERAKO ESKAINTZA BEREZIAK  
LOREAK ETA LANDAREAK ENKARGUAK HARTZEN DIRA!

Jaime Urrutia 21 | Tel. 948 58 10 53 | ELIZONDO

LORE SORTAK  
LORE-LANDARE KONPOSIZIOAK  
